

...eta!
Kittoa!

2016-IX-16

984 zkia.



Ipanemako mutila: Joko Olinpikoetan kontu-kontari



2016-2017 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 23ra arte

- Ordutegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50 eta %75eko deskontua

PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 euskaltegia@eibar.es

Eibarko
Udal
Euskaltegia





Policlínica Gipuzkoa

Grupo  Quirónsalud

BEATRIZ TRAPIELLA, pediatra:

“Umeen artean kutsatzea oso erraza eta azkarra da; horregatik ematen dira gaixotasun gehiago eskolara itzultzerakoan”

Beatriz Trapiella Policlínica Gipuzkoa Eibarko pediatrak, eskolara itzultzean umeek izan ditzaketen patologia ohikoenak azaltzeaz gain, horiek saihesteko jarraibideak ere eskaintzen dizkigu, eta “higiene-arauak” azpimarratzen ditu batik bat.

– Orain, eskolara itzultzean, zeintzuk dira txikienek izaten dituzten patologia ohikoenak?

Umeen patologia ohikoenak, berriro eskolan hastean, ohiko infekzio biralak dira, katarroak, gastroenteritisak, faringitisak, etabar. Euren artean oso erraz eta azkar kutsatzen dira eta horrek urtaro honetan gaixotasun gehiago izatea dakar. Aurrerago, behin klima aldatuta eta hotza hasten denean, izaten dituzten patologiak zeozer gehiago konplikatzen dira eta hainbat katarro neumonia, bronkitisa eta abar bihur daitezke.

– Zer egin dezakegu gaitz horiei aurrea hartzeko?

Urteko sasoi honetan etxeko txikienek izaten dituzten ohiko gaixotasunei aurre egiteko, lehenik eta behin, higiene-pautak ondo irakatsi behar dizkiegu, hala nola, eskuak sarri garbitzea, erabili eta botatzeko mukizapiak erabiltzea eta eztula edo doministikua egiterakoan sudurra eta ahoa estaltzea. Txikitatik ohitu behar ditugu ondo hidratatzea eta ur nahikoa edatera, biak dira-eta garrantzitsuak. Aldi berean, eta nahiz eta eurak arrisku hori ez ikusi, jolasteari utzi eta izerdituta daudenean sudadera edo berokia jarri behar dutela erakutsi beharko genieke, eta hotza egiten duenean ahoa eta sudurra bufanda edo



Trapiella doktorea, Policlínica Gipuzkoa Eibarko pediatra.

“Eskola-sasoian ohiturak ezartzea garrantzitsua da. Ordu egokian oheratu behar dute eta lo nahikoa egin”

antzeko zeozerrekin estali behar dutela ere bai. Eta, jakina, eskaini diezaiekegun babesik onena bakoitzaren adinari dagozkion txerto guztiak hartuta izatea da.

– Aholkurik bai, ikasturterako?

Eskola-sasoian ohiturak ezartzea garrantzitsua da. Ordu egokian oheratu behar dute eta lo nahikoa egin. Gosari orekatua eta nahikoa egitea ere oso garrantzitsua da, baita eskolara hamaiketako eramatea ere, fruta edo ogitar-teko txiki bat, opil industrialak baztertuz.

– Zein zerbitzu eskaintzen dituzu Policlínica Gipuzkoa Eibar-en?

Policlínica Gipuzkoa Eibar-en Pediatría kontsulta bateko ohiko zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu. Osasun-kontrolak egiten dizkiegu umei jaiotzetik 14 urtera arte eta txertotak jartzen dizkiegu. Kontsulta pediatrikoa ere eskaintzen diegu astelehen eta ostegun arratsaldeetan. Gainera, Eibarko zentro berean, erradiologia, analitika eta askotariko espezialitatera jotzeko barne-kontsultak egiteko ahalmena dugu, halakoak beharrezkotzat joz gero.





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabidea@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Orain dela 40 urte

ELA sindikatuaren III Kongresua orain dela 80 urte, 1936ko uztailaren Iruñean zen ospatzekoa baina militar faxisten estatu kolpeak galarazi zuen. 40 urte beranduago, oraindik klandestinitatean, eta bi zatitan banatuta, gauzatu zen.

Lehena, eta antolakuntza mailan garrantzitsuen sindikatuaren norabidea aukeratzeko, Euban 1976ko abuztuko 16tik 20ra egin zen. Lehen bost eguneko saioan Printzipioak eta Estatutuak onartu, Konfederazioa osatu eta arduradunak izendatzea izan zen bete beharreko lana. Hemen finkatu ziren ezaugarri nagusiak: autonomia politikoa eta autonomia finantzarioa.

Eibarko Astelehena frontoian egin zen bigarren saioan, 1976ko urriaren 30ean eta 31an. ELAren lehen ekitaldi publikoa izan zen, legalitateatik at, sindikatuak debekatuta baitzegoen oraindik. Jose Luis Zumeta, margolari ospetsua, Jose Manuel Alberdi eta Alex Garate, militante askoren laguntzarekin, izan ziren ekitaldirako frontoia apaindu zutenak.

1.500 ordezkari bildu zituen eta nazioarteko pre-

sentzia nabarmena izan zen: garai hartako 3 munduko konfederazio nagusiak, 34 herrialdeetako eta industrietako 15 federakundeetako ordezkariak izan ziren bertan, beraien babes eskainiz.

Egitaraua eta Ekintza Plangintza eztabaidatu ziren helburu jakin batekin Euskal sindikalismoa bertirako finkatzea. Horretarako ordura arte "defentza" maila alde batera utzi eta eraso aldira jotzea proposatzen da, "militanteen" sindikatu soil bat izatetik, milaka lagun bilduko dituen sindikatu bihurtu arte.

Eraberritzea izan zen. 1911n sortutako sindikatu garai berrietara egokitzea. Horretarako klandestinitatean ari ziren gazte taldeak bat egin zuten Baionan erbesteratuta zeuden antzinako buruzagiekin. Manu Robles-Arangiz lehendakariak gazte talde honetan aurkitu zuen sindikatu izaera mantendu nahi zuen asmoa, gogoia.

Garbi zuten urte askotarako lana hartu zutela bere gain eta gaur ezagutzen ditugu emaitzak.

Amagoia Lasagabaster
(ELAko Eskualde Arduraduna)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LARRITU.- Estutu, kezkatu, nahigabetu. "Ha ez dok errez larrittuko: kriston sustua emon eta bihotz taupadak 40tik 42ra igotzen jakozak".

LASKITU/LAUSKITU.- Estutu. "Lehen, labadorarik ez eguanian, erropak errekan edo askan garbitzen ziran, ondo laskittu eta gero harrizan jo-jo egin".

Besarkatu. "Urrezko domiña atara dabenetik makiña bat lauskittu hartu dittu herrizan".

astean esanak

"Herri urrutikoenean ere gaur egun erraza da irakurketa-klub bat sortu duen liburuzain gogotsu batekin. Emakumea, jakina. Eta zeintzuk ematen dute izena holakoetan? Izango da gizon bat edo beste, baina gehienak emakumeak izaten dira. Liburuzain horiei zergatiaz galdetuta, gu parte-hartzaileagoak garela diote; eta baita esperientziak partekatzean ez garela hain lotsatiak, ezta zer irakurtzen dugun esaterakoan ere. Gauza bera hondartzetako pilates saioetan: emakumeak dira ikasle bakarrik, top-modelak izan gabe"

(JULIA NAVARRO, IDAZLEA)

"Pentsioa 700 eurokoa baduzu eta 600 kentzen badizue 2.500 euroren kostoa duen zerbitzu baterako, irabazten irteten zara. Baina, 2.500 euroko pentsioa izanik, 2.000 kentzen badizute, plaza ia osoa ordaintzen duzu, zure etxean artatuta egonda askoz merkeago irtengo zitzaizunean. Horrek sarbidea hain unibertsala ez izatea dakar. Lortu dugu inor ez geratzea egoitza batera joan ezinik dirurik ez duelako, baina kontrakoa ari zaigu gertatzen. Bideragarria ez dena da hemengo: gero eta giza-eskubide gehiago izatea, kalitatezkoak eta garestiak, baina ez aurreikustea horiek ordaintzeko mekanismo berezirik"

(JOSEBA ZALAKAIN, IKERLARIA)

"Alemania gero eta ahulago dago. Haren nagusitasuna uste genuenaren erdira ere ez da heltzen. Eta aurtien ikusi dugu Alemaniaren boterea gainbaloratua izan zela. Euroaren eta Ukrainiaren krisietan beste batzuk ziren laguntza eskatzen zutenak, eta oraingoan Alemaniak berak. Hiru kasuetan elkartasuna zegoen jokoan. Ezustea izan da haren interes ekonomikoekin guztiz alineatutako herrialdeek ezetz esan diotela. Batez ere Alemaniako autoetarako piezak egiten dituzten Eslovakiak eta Hungariak errefuxiatu mila batzuk hartzeari uko egitea... Identitateak noiztik du diruak baino indar gehiago?"

(HANS KUNDNANI, POLITOLOGOA)



ENRIKE GISASOLA

Melokotoiak

Aurten bai, aurten melokotoiak eta friskuak egin dira. Nere akorduan gutxitan aurtengo moduko uztarik. Izan be, ni txiki-txikia izan eta baziran arbola ederrak gurean. Aittitta Joseri galdetu nion behin ea nondik jirau zituen frutarbolok. "Kaletik etorri ziran" berak. "Zelan ba kaletik?" nik. "Bai ba, ... basuratan" harek berriz. Hariari tiraka jakin dut Ipuru aldean bazala hondakinak metatzeko lekua, orain futbol-zelaia dagoen tokian. Gaur organikoa deitzen duguna bertan pilatuta geratzen zen. Hain zuzen be aittittak gurdian hartuta soroak ongarrizkeko erabiltzen zuena. Horrela, kaletarrek jan eta basurata botatako hazietatik sortutako melokotoi landaretoak azaltzen ziren arto eta gari artean. Argi dago organikoa eta konposta ez direla gaurko kontuak, Eibarren ere ez. Lurraren emankortasuna daukan materia organikoaren arabera da. %5ekoa neurri egokia dala esan ohi da. Nafarroa eta Arabako lur asko eta askoren indizea ez da %1era heltzen. Ondorioz, uzta jasotzekotan urtero ezinbestean produktu kimiko ugari erosi eta bota behar dituzte hango nekazariek. Horra hor 50 urtetako nekazaritza-politikaren emaitza: lurak erre ondoren, negozioa nekazari eta herritarren kontura (Vuelto Fertiberia-k kasu). Zorionez organikoaren bilketak gora egiten dihardu. Gipuzkoako konpostari kalitate-testak egin ondoren, A maila eman du, hau da, kalitate oso ona, lurra ongarrizkeko modukoa. Aldiz, urrea balio duen baliabidea gehitzen joan beharrean, itxura batean, erraustegia eraikitzen goaz. Herritarra bere hondakinekiko beharko lukeen ardura erlaxatzeaz gain, birziklatzeak eskatzen duen ahalegin txiki hori uxatzeko aitzakia bikaina. Lur erreak biziberritzeko baliabideak errez gero, geroni melokotoi ederrenak!

4.000 eskola-agenda banatu dittue

Ikasturtia hasi barri dala eta, Debegesak 4.050 eskola-agenda banatu dittu Debabarreneko ikaslien artian, Eskolako Agenda 21 egitasmuaren barruan. Kurtso honetarako agendak egitteko orduan ardatz modura Euskal Kostaldeko Geoparkia aukeratu dabe. Debegesak 14 urte daroiaz eskualdian garapen jasangarrirako heziketa programia dan Eskolako Agenda 21 egitasmuia sustatzen eta koordinatzen. 2016-17 ikasturtian ikasliak klasian landuko daben gaixa biodibersidadiarena izango da. Guztira 28 ikastetxek hartuko dabe parte programan eta agendak LH, DBH eta Batxilergoko ikaslien artian (6-18 urte) banatu dittue.



asteko
%11'8
datua

%11'8 hazi da udan Debabarrenara bisitan etorritakuen kopurua; atzerritarren kopurua igo da gehixen, iaz baiño %28'5 gehixago etorri dira eta. Turisten %39'7 estatutik etorri dira, %31'5 atzerritarrak ziran eta %28'7 EAE-kuak. Ekaiñetik abuztura 23.900 bisita jaso dittue Deba eta Mutrikuko turismo buleguetan.

Marea bizixak asteburuan

Bixar eta etzi marea bizixak izango dirala aprobetxauta, Geoparkiak Mutriku, Deba eta Zumaixan marearteko zabalgunia eta flyscha deskubritzeko bisita gidatuak eskinduko dittu: zapatuko hiru bisitak 10:00etatik 13:15era egingo dira (Zumaian euskeraz eta Mutrikun eta Deban gazteleraz). Eta dome-

kan, barriz, Mutrikuko bisita 10:00etatik 13:15era egingo da (euskeraz) eta Deba eta Zumaixan 11:00etatik 14:15era (bixak gazteleraz). Erreserbak online egin leikez, geoparkea.com webguniaren bittartez edota Mutriku, Deba eta Zumaixako turismo buleguetan.



Asteburu honetan urteko itsasbehera bajuenetakuak izango dirala-eta, bisitak antolatu dittue.



Sosolara urteeria antolatu dau Legarreko jai batzordiak

Sosola basarrixa bertatik bertara ezagutu nahi daben herritar guztiak horretarako aukeria izango dabe bixar, ondo pasatzeko gogua besterik ez da bihar. Arrajolape Legarreko jai batzordekuak antolatuta, bixar 10:00etan Legarre Gain alkartian batuko dira eta, paseotxo bat emoten, Sosola basarriaraiño igoko dira parte hartzera animatzen diranak. Ogixa zelan egitten daben ikusi eta ikastiaz gain, basarrixaren historixia eta kontuak be ezagutuko dittue. Gaiñera, hamaketakua egitteko basarriko produktuak dasatuko dittue: gaztaia, ogixa, sagardua...

Legarreko jai batzordekuak iaz antolatu eben urteera hau lehen aldiz: "Jaixetako asteburuan egin genduan iaz, lehen orduan. Ondoren ekitaldi asko genduzen eta urteeria egitteko larri ibilli giñan, denpora gitxi euki genduan. Horregaittik aurten astebe aurrreratzia pentsau dogu, lasaixago ibiltzeko. Iaz Biriñaoko Antonio gurekin batera igo zan

eta bidian mugarixeri buruzko azalpenak emon zeskuzen. Aurten be etortzia espero dogu eta eibartar guztiak animatu nahi dittugu gurekin igotzera. Gure herrixan danguazen eta egitten diran gauzak gertutik ezagutzeko aukera paregabia da".

Legarreko jaixak bete betian ospatzeko moduko programiari datorren asteburuan, barixakuan ekingo detse, 19:30xetako txupinazuarekin. Hortik aurrera programa betia preparau dabe barixaku zein zaturako eta, barrittasunen artian, zapatuan 11:00etan hasiko dan Legarreko Kronoeskillaria dago: San Juan kaletik (loradendian ondotik) hasi eta eskillara guztiak igo biharko dittue partehartzaillak, txosnaraiño. Adinka sailkatuko dabe probia eta parte hartzen daben guztiendako egongo da freskagarri eta pintxoren bat. Izen emotia txosnan bertan egin biharko da barixaku arratsalde-illuntzixan zenbat jende egongo dan jakittek.

autuan


Udalaren lan eskintzak

Udalak bi lan eskintzaren barri emon dau bere webguniaren bittartez: lanpostu bat lau hillebetez Kirol Patronatuan mantentze-lanetako peoi jarduteko (Lanbiden 162016007931 eskintza zenbakixa) da eta bestia hiru hillebetez elektrizista ofizial moduan biharra egitteko (162016007802 eskintza zenbakixa). Interesa dakanak izena emon biharko dabe Lanbiden irailaren 20xa baiño lehen, lan eskintzaren zenbakixa zihezuta. Informaziño gehixagorako 943023802 (Lanbide) telefonora deittu edo lanbide.euskadi.eus helbidian begiratu.



Taillarra

Ainara LeGardon muskarixak jabetza intelektualari buruzko taillarra emongo dau Eibarren, Biharrarian-en eskutik. "Taller de propiedad intelectual y gestión de derechos" goiburuari jarraituta irailaren 24an (zapatua) izango da taillarra, 12:00xetatik 14:00xetara eta 16:00xetatik 19:00xetara. Interesa dakanak apuntatubiharrarian@gmail.com helbidian emon leike izena (izen-emotik 25 euro balixo dau)



abbiewhiteenglish@gmail.com

943203197

BISTA EDER 7 BEHEA - EIBAR

On Ekin enpresa idea eta proiektuen lehiaketia

Laugarrenez abiatu dabe On Ekin lehiaketia Ekingune, Debabarrena-ko ekintzaillien arteko lankidetzeta eta promozioarako alkartekuak. Asmua sormena bultzatzia da eta, horretarako, persona zein enpresen ekimenak saritzeko lehiaketia antolatu dabe. Proiektu/ideiak garatzeko sortu barri diran enpresetan edota lehendik martxan dagoazenetan hobetzeko prozesuak dittuenendako diru-laguntza txiki bat egongo dala aurreratu dabe antolatzailliak. Horretarako, bi fasetan banatuta dagan lehiaketan parte hartzeri animau nahi dabe jendia. Lehen fasian, arlo sozial eta ekonomikan diharduen hainbat ordezkari osatutako epaimahaixak aurkeztutako proiektu/ideien aurrebaloraziño bat



egingo dabe (idea/proiektuak aurkezteko azken eguna urriak 7 da). Eta bigarren fasia, barriz, urriaren 20xan egingo daben afarixan burutuko dabe: *"Ekintzailetza modu batera edo bestera babesten daben guztiak izango dabe afarixan parte hartzeko eta ideia/proiektu onenaren aldeko botua emoteko aukeria"*. Lehiaketan parte hartzeko argibidiak ekingune.com helbidian, On Ekin atalian emon ditue argittara eta, horrekin batera, ekingune@ekingune.com helbidera idatzi edo 943 208 420 telefonora deittu leike informaziño gehixago jasotzeko.



Araneko parkia konpontzen dihardue

Irailaren hasieran ekin zetsen Arane kaleko parkia konpontziari. Txomoko goiko parkia goitik behera barrizatzeko biharrak Obras Especiales de Gipuzkoa SA enpresari adjudikau jakoz, 564.852 euruan eta 17 asteko epian amaittu biharko dittue. Bestiak beste, parkia iragazgaitu eta birantolatu biharko dabe. Eta, horrez gain, jolastokixa kendu eta parke barrizan lorategi-egonleku zabala sortuko dabe.

J.A. Mogleko drainatze-sarea konpontzen



Hezetasan arazuak konpontzeko asmuarekin aste honetan hasi dittue Juan Antonio Mogel auzuan drainatze-sarea hobetzeko biharrak. Horretarako hodi barrira ipiñiko dabe arazua daken etxien fatxada onduan, euri-urak jasotzeko eta euri-uren sarearen kutxatilletara eruateko. Biharrak 9. eta 12. zenbakixen artian hasi dittue eta, gero, 1. eta 8. zenbakixen artian jarraituko dabe biharran. Artzamedia enpresiak egingo ditte lanak, zortzi asteko epian. Biharrak 88.511 euruan adjudikau dira.

Lan-orientaziño zerbitzua Debegesan

Daiteke Gizarte Aholkularitzak lan-orientaziño zerbitzua eskinduko dau atzera be Debegesaren egoitzan (Azitain industrialdea, 3 bis). Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro kolaboratzaile gisara jardungo dabe eta emongo daben zerbitzu horren bittartez lan bitartekaritza, prestakuntza, lan-eskintzen kudeaketia eta orientaziñua (indibiduala zein taldekakua) eskinduko ditte. Horrekin batera Daitekek bere lan poltsa dauka, laneratze agentzia homologatu modura. Bulegua astelehenetik eguenera bittartian 08:30xetatik 16:30xetara zabalduko dabe eta barixakuetan, barriz, 09:00etatik 15:00etara. Arduradunekin kontaktuan ipintzeko eta aurrez hitzordua eskatzeko 943 82 01 80 telefonora deittu edo ane.basurto@daiteke.com helbidera idatzi leike.



LEIRE DE LOS TOYOS IBARROLA

(2016ko irailaren 9an hil zen, 41 urterekin)

— LILI BAT JOAN ZAIGU —

“BETI EGONGO ZARA GURE BIHOTZETAN.
MAITE ZAITUGU”

Zure lagunak

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

CV-a hobetzeko taillarra eguaztenian

Debarrenian bihar barik dagu-zenendako taillarra antolatu dabe DLAN enplegu anezkak eta Andre-txeak alkarlanian, CV-a zelan hobetu ikasi nahi dabenendako. Ordu biko taillarra izango da, datorren eguazte-nian, 10:00etatik 12:00xetara Andre-txean (Zezenbide, 9xan). DLAN enplegu anezka Debarrenako gazte talde batek osatu dau, gaitasunak ho-betu eta esperientzia profesional eta personalak partekatzeko asmuare-kin, holan biharra topatzeko aukera gehixago izateko. Diñuenez, "lana to-patzeko orduan ezinbestekua da al-

karrizketa bat egittia, baiña alkarriz-ketia egittia lortzeko CV on bat izatiak be garrantzi haundixa dauka. Hori ja-kinda, eta Debarrenian daguan lan-gabezixa tasa altuarekin, DLAN tal-diak ekitaldixa antolatzia erabagi dau langabezixan daguzeneri laguntze-ko. Lehen zatixan CV erakargarri bat egitteko pausuak azalduko dittue eta bigarrenian CV-a hobetzen lagundu-ko detse parte hartzen dabeneri". Taillarra duan izango da eta parte har-tu nahi dabenak lanzaderadebarre-na@gmail.com helbidera idatzi bihar-ko dau, datuak emonda.



Burua aktibo egoteko ariketa berezixak landuko dittue.

Bururako ariketak Ipuruako jubiletzian

Datorren astelehenian "Gimnasia Mental" ikastarua hasiko dabe Ipuru-ko jubilatuen egoitzan. Ikastarua aste-lehenero emongo dabe, arratsaldeko 17:00etatik 18:30xetara eta helburua memorixia lantzia eta burua aktibo man-tentzia dala diñue arduradunak: "Adituak argi eta garbi esaten deskue geure neu-ronak ariketak eginda aktibo mantentzia ezinbestekua dala, are gehixago urtietan aurrera egitten goiazela. Ikastaruarekin adimen gaitasunak lantzia eta hobetzia

billatzen dogu, modu praktiko batian. Ari-keta ezberdiñen bittartez memorixia, arreta, lengoaia, irudimena eta abar lan-duko dittugu. Gaiñera informaziñua ho-beto jasotzeko eta gogoratzeko estrate-gixak erabillitta gure errendimenduak ho-bera zelan egitten daben ikusiko dogu. Hónek guztiak talde giro lasaixan egitten dittugu, umore onian eta bakotxaren erritmua errespetauta". Interesa dakanak 615738381 telefono zenbakira deittu eta izena emoteko aukeria daka.




JOSE LUIS ALBERDI ZUBIAURRE

1944 - 11 - 20 / 2016 - 08 - 12

Izarren hautsa bihurtuko zara, baina zure maitasunaren distirak betirako gure bihotzak argituko ditu.

Familiaren izenean, bihotz-bihotzez, gure eskerrik beroena nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



Hodei Ezpeleta (aizkolaria)

"Teknika lantzea gehiago gustatzen zait gorputza topera behartzea baino"

Arrate egunean 17 urte egin zituen eta, handik bi egunera, txapela jantzi zuen parte hartzen zuen lehenengo txapelketan. Bizkaiko 2. mailako txapela jantzi zuen Marurin, bigarrenari lau minutuko aldea aterata. Garaipen horrekin datorren urtean 1. mailakoan parte hartzeko txartela eskuratu du Ernesto Ezpeleta "Bihurriren" semeak. Badira hainbat urte erakustaldietan parte hartzen hasi zela eta lortutako garaipenak argi erakusten du bide zuzena daramala aizkoraren izarra izateko.



- Alde handia kendu zenien besteei. Hain erraza izan zen irabaztea? Edo egun bikaina izan zenuen akaso?

Lehiatzera irteten naiz beti. Egia esan, lasai nengoen eta dena primeran joan zen. Hori bai, inork ez du ezer oparitzen eta ez dago ahalegina eskatzen ez duen lorpenik. Ilusioa dut datorren urtean Bizkaiko onenekin lehiatzeko.

- Zelako lanari egin behar izan zenuen aurre? Ez zen oso luzea izan, ezta?

Bi kanaerdiko moztu genituen: 60 ontzako eta oinbiko bana. Egur oso onak egokitu zitzaizkigun eta horrek bakoitzaren lana nabarmentzeko balio izan zuen. Nik 14 minutu eta 45 segundo behar izan nituen lana amaitzeko.

- Askok entrenatzen duzu? Asteazkenetan?

Astero entrenamendu pare bat besterik ez dut egiten; horrekin nahikoa dut. Batez ere, ondo moztzen ahalegintzen naiz; ez naiz joaten nire burua txikitzen. Fisikoki gorputza behartzea ez dut gogoko, nahiago dut teknikoki landu eta janztea.

- Zer lan mota duzu gogoko? Luzeen aldekoa zara? Motzak hobeto?

Aukeran, tartekoak. Lan esplosibotarako ez naiz egokiena izango; eta gauza bera gertatzen zait lan neketuekin ere.

- Ibiliz zara moztzen zutikoan? Altueran egin duzu probarik?

Bietan jardun izan dut, zelan ez! Baina nahiago dut zutikoan jardutea altueran baino. Gutxiagoetan egokitzen zaizkigun modalitateak dira.

- Aitarekin bidetik jotzeko asmorik baduzu? Markek eta halakoek deitzen dizute?

Oraindik urrutik ditut halakoak. Nahiago dut kirola egiterakoan gozatzen jarraitzea.

- Aizkolaririk gustokoena?

Izen bat esatekotan, orain urtebete erretiratu zen Floren Nazabal. Izenari baino, gehiago erreparatzen diot ondo moztzen duenari. Bakoitzak gure gustoa izaten ditugu, baina ikusi eta ikasteak betetzen nau ni.

- Ikasketek denbora asko kentzen dizute aizkorarekin jarduteko?

Ahalegintzen naiz gauza biak partekatzen eta bietan kontzentratzen. Baxilergoko 2. mailan dihardut eta badut Unibertsitateko joateko asmoa.

- Erakustaldi asko izan duzu udan?

Abuztu osoa Nojan eman dut, atsedean hartzen, eta ondo etorri zait. Aurretik bai, harat-honat ibili ginen. Gainera, plazan duzu aukera onena jendeari zure maila erakusteko.

- Plaza bat aukeratzekotan...

Eibarkoa! Badago hoberik, ala?

Haurrentzako erropak eta osagaiak

tuc tuc

Burbujas y más

Boles d'olor VIP DENDA

"Little Yerse" 3tik 10 urtera arteko neskatilentzat

Estaziño, 5 Tel. 943 53 16 54

Radio Eibar

CADENA SER


104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Abuztu osoa eman du Imanol Magro Eibarko kazetariak Brasilen. Hara joan eta lehenengo aste bietan lanari ekin behar izan zion, egun osoko jardunean, Rioko Joko Olinpikoetako kronikak egiten. Enekoitz Telleriak eta biek egunero hamabi orrialdeko gehigarria betetzen zuten. *"Pentsa, abuztuaren 20ra arte ez nuen bertako Cristo del Corcovado ikusteko aukerarik izan"*. Orain dela lau urte Londresen egon zen, baina oraingoan beste modu batean bizi izan ditu Jokoak: *"Aurrekoan akreditazioarik gabe joan nintzen; oraingoan ate guztiak nituen zabalik"*. Hala ere, erraztasun hori bertakoek ez dutela izan dio: *"Kanpokoentzat egindako Jokoak izan dira"*.

IMANOL MAGRO (BERRIAko kazetaria):

"Aukera izan dut Joko Olinpikoak kanpotik zein barrutik ezagutzeko"

- 2012ko Londresko jokoetan ere izan zinen. Zelako alde ikusi duzu orduko eta aurtengo Joko Olinpikoen artean?

Hasteko, hiria bera. Ez dira gauza bera Rio eta Londres. Londresen dena antolatua zegoen eta Rioko arazo handiena garraio publikoa izan da. Dena dela, izan da hor desprestigio kanpaina moduko bat eta hori errealitatearen kalterako izan da. Zikarena, esaterako: han izan garen denbora guztian eltxo bakarra ere ez dugu ikusi-eta! Londresko Jokoak inoizko onenak izango ziren, baina Riokoak ez dira Atenaskoak baino kaskarragoak izan. Rio jokoetara egokitu da eta jokoak Rio-ra: segurtasun neurriak oso handiak izan dira eta horrek joko horiek atzerritarrendako egindakoak izatea ekarri du.

- Aipatzen dituzun segurtasunaren aldeko neurriak larregizkoak izateraino?

Jakina! Hiri Olinpikoko kanpoko irudiek estatuko kolpe baten ziruditen askotan. Tankea genuen han bertan eta Copacabanan gerraontzi bat ere bazegoen. Militarren katxeoak, gehiegizko eskaneokoak... Ofizialki, polizia eta militarren arteko 85.000ko laguneko partida aipatu zuten, baina baliteke gehiago ere izatea. Lortu zuten, hori bai, bertako jendea urruntzea: gunea ondo garbitu zuten, ez zen eskalerik ikusten... Musikari batek esan zidan hondartzan gaueko hamar bat lagun izaten zirela lo egiten eta desagertu zirela. Esklusio jokoak zirela-eta hainbat adierazpen eman ziren, oihartzun gutxi izan zutenak.

- Ikusleei dagokienez, ez da jende gutxi ikusi hiri olinpikoan kirol lehiaketak jarraitzen?

Egia da hori, foball eta boleibola kenduta beste kiroletan zaletu gutxiago izan da. Baina sarrerak, esaterako, oso garestiak izan dira. Hala ere, interneten dena salduta zegoela zioten. Eta gertatu da birsalmentan prezio azpitik saldu behar izatea, prezio erdian. Londresek, multikulturalagoa izanda, publiko potentzial gehiago zuen. Brasilgo batzbesteko soldata 360 eurokoa da hile-



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakariagaia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba



HEMEN
eta **ORAIN**
DENON HERRIA
BOZKATU ehildu

an eta sarrerak 40 eurotan zeuden. Eta bada beste datu adierazgarrikerik ere: estadioetako ikusleen artean zaila zen beltzik edo mulatorik aurkitzea.

- Zure kasuan, aurretik lana gogotik egin ondoren izan zenuen aukera gero opor giroan bidaia amaitzeko, ezta?

Abuztuaren 22ra arte ez nuen oporrik narbitu, hamabi orrialdeko gehigarria prestatu behar genuelako egunero. Baina oraingoan urrezko kaiolan egon nintzen, Londresen ez bezala kreditazioa nuelako. Kirola ahaztu barik, jakina, baina arlo soziala asko landu genuen, horko gaiak dosifikatuz: bortizkeria poliziala, parke olimpikoa egiteko faveletatik botatakoak, genero ikuspegitik dituzten arazoak... Bideoak bidali behar genituen Berriara, kronikak amaitu... Han 05:00etan argitzen zuen eta 18:00etan ilundu. Hemengo orduarekin alderatuta, bost ordu gutxiago genituen han eta hango 18:00ak ziren gure kronikak bidaltzeko mu-



Berriako kazetaria Stefan Olsson Suediako eskubaloiko selekzioko prestatzailearekin.

ga. Kirolaren bueltan jardunda ere, batez ere 33 euskal kirolarien gaurkotasunaren inguruan jardun genuen.

Gero bai, izan zen tartea oporrekin gozatzeko. Paraty gunetik turistikoan izan ginen eta gero Salvador de Bahian aste bateko, berriro Riora itzuli aurretik. Beste giro bat narbitzen zen bueltan, lasaiagoa; baina normaltasunera bueltatu gabe oraindik, Joko Paralinpikoak ere hor zeudelako, zain. Poliziaria ikaragarria izan da: benetakoa obsesioa bizi izan dute segurtasunarekin. Hori bai, oraingoan Londresetik nuen arantza ateratzea lortu dut: han kreditazio barik izan nintzen, eta hemen ezin izango nuen ezer egin egoera horretan. Oraingoan kanpotik eta barrutik bizi izan ditut Jokoak.

- Zer iruditu zaizkizu Jokoetako hasierako eta amaierako ekitaldiak?

Hasierakoa bakarrik ikusi nuen eta, niretzat Pekingoa bada ere orain arte egin den onena, ikusita diruz justu zebiltzala, xumeagoa baina aldi berean polita iruditu zitzaidan Riokoa. Samba, karnabalak... euren presentzia izan zuten hor. Desfilea luzeegia izan zen, baina hori betikoa da: bi ordu larregizkoa da. Amaierakoa, bestalde, hurrengo Tokion izango dela-eta, Japonetik asko mediatizatu zuela uste dut.

- Rioko Jokoetako zein kirolarirekin gertatu zinen?

Maialen Chourreaut, euskaldunen artean Indurainen ondoren berak lortu duela bigarren urrezko domina. Markel Alberdi eibartarra, berarekin izandako bi orduko solasaldia oso aberatsa izan zelako niretzat. Mundu mailara jauzi eginda, Usain Bolt, Mi-



Iñigo Peña piragüistaren aldeko zaletuak Rion.



Phelps igerilari handia podiumean.



Trenak emakumeentzat bakarrik.

DLAN **XIBARRKO UDALA** ANDRETXEA

FRESKATU ZURE CURRICULUMA!

DOAKO TAILERRA ZURE CURRICULUMA HOBETZEKO. ANIMA ZAITEZ ETA BIDALI ZURE DATUAK LANZADERADEBARRENA@GMAIL.COM EMAIL HELBIDERA.

IRAILAK 21 10:00-12:00
 ANDRETXEA (ZEZENBIDE 9, EIBAR)

Dejagosa Telefonica FUNDACIÓN Gipuzkoako Foru Alkandua FUNDACIÓN Santa Maria la Real del Patrimonio Histórico

J.A. MOGEL IKASTOLOKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

DMASA KILOMETROAK 2016 BERSARA


autobus **8€**

Goizeko **09:00**etan IRTENDA

Arratsaldeko **19:30**ean BUELTATZEKO

zerbitzua

urriaren 2an KILOMETROAK Bergaran



Jokoetako irekiera ekitaldiaren irudia. Gustati zitzaion Magrori, "desfileak luzetxo jo bazuen ere".

chael Phelps eta Simone Biles gimnasta, duten mailarengatik eta euren inguruan mugitzen den guztiarengatik. Bilesen tranpolingo finalak ikusteko aukera izan nuen eta, bi jauzietatik onena aukeratzen badute ere, biak ezinhobeak izan ziren. Emakumezkoen errugbiaren finalean ere izan nintzen, Zeelanda Berria eta Australiako taldeen artekoan. Eta orain aitortu dezaket: Andy Murray teniseko urrezko dominaren irabazleari lapurtutako pelota gordeta daukat.

- Berrito ikusleei helduz, izan dira kiroltasun maila gutxi erakutsi duten unek: txistuak dopinaren kasuekin nahastutakoei eta halakoak.

Hipokresia handia dago horren inguruan kirol munduan, denek egin dezaketelako gehiago arazoa konpontzeko. Bai, izan dira, igeriketan batez ere, errusiarren aurkako txistuak podiumean zeudenean. Brasilarren "kultura futboleroaren" erakusgarri izan dira ere brasildarren aurkakoen hutsak txalotzen zituztenak, pertikaren finalean kasurako.

- Zure ikuspuntutik, zer aldatu beharko lukete Joko Olinpikoak?

Garapen bidearen dagoenarentzat uste dut ona dela, jakinda beste lehentasun batzuk ere izango dituztela. Hori diot uste dudalako badagoela hortik zehar horrelako Jokoak beti herri garatuetan egin behar direla diotenak. Prezioak jaiste ere ez litzateke txarto egongo, luzuzko artikulua bihurtu delako. Herritar arrunta ezin da gerturatu horrelakoetara askotan, estadio olinpikoa ezin dute ikutu. Markekiko menpekotasuna ere badago. Bizio garestia



Segurtasun neurriak gehiegizkoak izan zirela dio Imanolek.

da, azken batean, azpiegiturak sortzea ere eskatzen duelako. Eta, zergatik ez, igual kirol gehiegi dago: ez dakit zer egiten duten hor golfak, zaldiak, foball profesionalak...

- Kirol minoritarioek, dena dela, hor aurkitzen dute oihartzun bakarra. Badago beste kirol ekitaldirik emakumezkoak gizonetzkoen parean jarduten dutenik?

Egia da hori, tratamendu parekatuena eskaintzen zaie Joko Olinpikoetan eta, Choureauten kasuan moduan, piraguismoa lehen mailan kokatzeko halako aukerarik gutxitan izango da. Maialenen gurasoekin harreman polita egiteko aukera izan nuen bidaiatik bertatik, hegazkinean justu aurrean zihoazen ezagutu nituen-eta.

- Euskadun askorekin egin duzue topo?

Brasilgo euskal kolonia Riotik hegoalderago dago, Rio Grande do Sul-en. Baina Iñigo Peña piraguitak -Eibarren jaiotakoa da, hiru urterekin Zumaiara joateko- kuadrila eraman zuen, Ander Elosegik baita... Londresen ez beste, baina izan zen euskaldunik, bai.

- Tokio 2020an egoteko asmorik bai?

Bidaltzen banaute, primeran, lanean izanda ere asko gozatzen dudalako. Munduan egiten den ekitaldirik handiena dela uste dugu Berrian eta Sidneyra, Atenasera, Pekinera... bi kazetari bidali izan dute beti. Londresen Unai Zubeldiarekin izan nintzen eta orain Enekoitz Telleria izan dut lagun. Esperientzia biak oso aberasgarriak izan dira.

- Zutabeetako 'Ipanemako mutila' izenburua nondik?

Handik hiru egunera 'Samba badago' bururatu zitzaidan. Londresen egindakoak hobeak zirela uste dut; orain serioak atera zaizkit.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

2016/17 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik



EUSKALDUNTZE OROKORRA
 (AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
 (AURREZ AURREKOA)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus **Udalaren laguntzaz**
BEKA SISTEMA

Sostoa 1, 1. solairua **Tfnoa: 943 201 379**

Txokotik errebotera: XX. mendeko pilotarixak

Gure herriko Astelena pilota **Katedralarekin batera**, badira Eibarrekin lotutako hainbat pilotari kirol modalidade horretan izena izatia lortu dabena. Batzuk herrixan jaixotakuak diran moduan, beste batzuk kanpotik hona bizitzera etorritakuak dira. Baiña danak be mundu horretan ibilli dirazeneri ezagunak egingo jakuenak. Tratamendu berezixa merezi izan dabenen artian, **Miguel Gallastegi** haundixa aittatu bihar dogu, Indalezio Sarasketa "Eibarko Txikito" haundixaren ondoren gure herrixak emon dabena pilotari haundixena. Atano III.a pilotari haundixeneta-kuaen kontra jokatu zittuan lau

partiduak irabazi zittuan. Asoliantza bazarriko atzelarixak partidu asko jokatu zittuan biren eta hiruren kontra eta, ez hori bakarrik, gehixenetan irabazle urten zalako. Bittan izan zan buruz-buruko txapelduna Miguel haundixa. Hona hamen beste batzuk:

Jose Luis Akarregi.- Lekeittiarra jaixotzez, aurrelari onena izan zan bere sasoiaren. Nerbixua zekan eta sake bikaiña.

Jose Antonio Aldazabal "Aldazabal I.a"- Arrateko frontoian ikasittakua. Atzelarixa batez be, baiña aurrelari be jokatu eban. Urrezko ezkerria.

Iñaki Aldazabal "Aldazabal II.a"- Arrateko bonbarderua, bere sasoiaren parejetan atzelaririk onena izan zan; nerbixuak dominau eziñik ibiltzen zan.

Jose M^a Aranzibia.- Zesta-puntan 13 urterekin debutatu zeban Madrillen. Miamin eta Manilan jardundakua.

Alejandro Carral.- Kantxatik kanpoko personajia izan bazan be, lehen maillakuen sparring-a izan zan.

Romano Etxaburu "Txapasta"- Roman jaixotakua maisua izan zan dana kubritzen eta artistia dana bueltatzen.



1952ko buruz-buruko finalian Gallastegik 22-17 irabazi zetsan Akarregiri. Eurekin batera, Txapasta Akarregiren botillerua.

Jose Fermin Intxaurrend.- Lehelengo aurrelarixa izan zan, baiña atzian egin zittuan partidurik onenak, gehixenetan bigarren maillakuekin.

Javier Intxaurrend.- Aurrekuaren semia, gaztetan asko prometidu zeban aurrelarixa, gero bidian geratu bazan be.

Juan Lazpita.- Kantuan ezagunagua egingo zan akaso Lazpita hirukotiarekin, baiña profesioaletan jokatu eban.


Moises Moreno "Del Val I.a"- Riojako Herviasetik etorri zan gurera, Hilario lehengusarekin batera. Afizionatuetan munduko txapelduna.

Isaias Pascual "Pascual II.a"- Burgpsko Quintanar de la Sierran jaixua, 2. maillako txapela jantzi zeban buruz-buruko modalidadian.

Jose Luis Pascual "Pascual III.a"- Aurrekuaren anaixa, afizionatuetan Euskal herriko eta Espaiñiako txapelduna izan zan. Antiojuak erabiltziak gorago igotzia zaildu zetsan.

Marino Solaguren.- Gernikarra izatez, hona etorri eta hamen geratu zan bizitzen. Pilotari fiña izan zan.

Aurrekuekin batera, ezin doguz ahaztu pilotaren hainbat modalitatetan jardundako honakua: Esteban Agirre, Andres Arana, Pedro Atxa, Pedro Azpiri "Eibar", Francisco Berrondo, Ignacio Bildosola, Joaquin Errasti, Jose Etxaide, Humberto Gerrikagoitia "Baxiller", Marcos Gisasola, Ramon Gomez "Petit Pasiego", Juanito Juaristi "Mendaro", Pablo Larrañaga "Kareaga", Jaime Mendizabal, Hilario Moreno, Eugenio Olariaga, Julian Onaindia, Juan Sarasketa, Julian Telletxea, Periko Urkidi, Vicente Urkidi edo Eusebio Zaitegi, kasurako. Eta La Habanako frontoian mende hasieran jardun zeban Pasiegua (Laureano eta Manuel), Leonardo Aranzabal "Ali Menor" eta Nicasio Rincon "Nabarrete".



Aterru kazetarixak eta Olariagak Klub Deportiboko pareja ona osatu eban. Olariagak, gaiñera, profesioaletan be jokatu zeban.



LEIRE, zure joanerak gudan utzi duen itzala izan dadila maite izan zaituztenen betiereko babes eta izara.

J.A. Mogel Ikastolako ikasle, guraso eta langileak



Eusko Jaurlaritzako hauteskundeak irailaren 25ean

11 legegintzaldirako hauteskundeak izango dira irailaren 25ean egingo direnak Eusko Jaurlaritzarako. Tarte horretan bost lehendakari izan ditugu: Carlos Garaikoetxea bost urtetan, Jose Antonio Ardanzak 13 eman zituen, Juan Jose Ibarretxe beste 11, Patxi Lopezek lau egin zituen eta Iñigo Urkulluk beste lau amaitu ditu. Sasoi berri honen aurretik, baina, Jose Antonio Agirre izan genuen lehenengo lehendakaria, 1936ko urriaren 7an osatu zen Euskal Herriko gobernu autonomoarekin batera. Haren gobernua osatu zuten EAJko beste hiru kontseilarik (Jesus M^a Leizaola, Telesforo Monzon eta Heliodoro de la Torre), PSO-Eko beste hiruk (Santiago Aznar eta Juan Gracia, Juan de los Toyos eibartarrarekin batera), EPKko Juan Astigarribiak, Izquierda Republicanako Ramon Aldasoro, Union Republicanako Alfredo Espinosa eta ANVko Gonzalo Nardizek. Gobernu horrek Bizkaian bakarrik agindu ahal izan zuen, eta baita Gipuzkoako eta Arabako eremu txiki batzuetan. Gero kanpora jo behar izan zuen. Agirre lehendakari izan zen 1960ra arte; gero haren tokia Jose M^a de Leizaolak hartu zuen 1979ra arte. 1978an osatu zen Euskal Kontseilu Nagusiko lehen presidentea Ramon Rubial izan zen eta hurrengo urtean Carlos Garaikoetxeak hartuko zion lekukoa, Eusko Jaurlaritzako lehen hauteskundeen aurretik. Honakoak izan dira ordutik gaurdainoko hauteskundeetako emaitzak:



1980ko hauteskundeak.-

60 legebiltzarkide: EAJ (25), HB (11), PSE (9), EE (6), UCD (6) AP (2), EPK (1)
Lehendakaria: Carlos Garaikoetxea / Gobernua: EAJ

1984ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (32), PSE (19), HB (11), AP (7), EE (6)
Lehendakaria: Carlos Garaikoetxea, gero Jose Antonio Ardanza / Gobernua: EAJ

1986ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: PSE (19), EAJ (17), HB (13), EA (13), EE (9), AP (2), CDS (2)
Lehendakaria: Jose Antonio Ardanza / Gobernua: EAJ eta PSE

1990eko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (22), PSE (16), HB (13), EA (9), PP (6), EE (6), UA (3)
Lehendakaria: Jose Antonio Ardanza / Gobernua: EAJ, EA eta EE urtebete, eta EAJ, PSE eta EE gero

1994ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (22), PSE-EE (12), HB (11), PP (11), EA (8), EB-Berdeak (6), UA (5)
Lehendakaria: Jose Antonio Ardanza / Gobernua: EAJ, EA eta PSE, eta azken hilabeteetan EAJ eta EA

1998ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (21), PP (16), EH (14), PSE-EE (14), EA (6), EB-Berdeak (2), UA (2)
Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe / Gobernua: EAJ eta EA

2001eko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ-EA (33), PP (19), PSE-EE (13), EH (7), EB-Berdeak (3)
Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe / Gobernua: EAJ, EA eta EB-Berdeak

2005eko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ-EA (29), PSE-EE (18), PP (15), EHAK (9), EB-Berdeak (3), Aralar (1)
Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe / Gobernua: EAJ, EA eta EB-Berdeak

2009ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (30), PSE-EE (25), PP (13), Aralar (4), EA (1), EB-Berdeak (1), UPyD (1)
Lehendakaria: Patxi Lopez / Gobernua: PSE-EE

2012ko hauteskundeak.-

75 legebiltzarkide: EAJ (27), EHBildu (21), PSE-EE (16), PP (10), UPyD (1)
Lehendakaria: Iñigo Urkullu / Gobernua: EAJ

 **bista eder**
clinica dental - horts klinika

Asko dira
gure horts-kliniketara
etortzeko arrazoiak

R.P.S. 53/13



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

www.innovadentalclinicas.com

 **bista eder**
clinica dental - horts klinika

Bista Eder, 19
20600 Eibar Tel: 943 70 00 82

 **innovadental** []
Azpeitia
clinica dental - horts klinika

Jose de Artetxe, 5
20730 Azpeitia Tel: 943 02 59 55

IÑAKI IRIONDO
(Gara-ko kazetaria)**“Azken lau urteotan aukerak galdu dira”**

Azken legegintzaldia, 2012tik hona ekarri diguna kalifikatzerakoan, aukera galdutzat ikusten du Gara egunkarian politika arloa lantzen duen Eibarko kazetariak. “Gehiengo handia izan da Eusko Legebiltzarrean autodeterminazioaren alde, baina horrek sortutako itxaropenak ez dira gauzatu. EAJ-PNV 27 biltzarkideekin bakarrik hasi zen gobernatzen, eta handik lau hilabetera bestelako bidetik jo zuen. Ikusi zuenean lehenengo aurrekontuak erretiratu behar izan zituela, handik aurrerakoa PSE-ren eskutik egin du”.

Horrela, autogobernurako ponentzia bien arteko akordioan sustatu dela dio Iriondok eta, gaineratzen duenez, “gauza bera gertatu zen bakearen ponentzian, hor gainera PSEren betoa onartu baitzuen alderdi jeltzaleak”. Lau urteko legegintzaldiaren gaitetiko laburpena egiterakoan hiru puntu azpimarratzen ditu, “horiek izan zirelako gobernuak berak aurrera ateratzeko asmoa adierazi zituenak”: krisitik ateratzeko esparruan, “hemen estuan eramandako politikekin egin dute bat; zenbakiek ez dute besterik islatzen”; autogobernuarenean, “ez da ezer egin, ezin dugu inolako urratsik aipatu eta, horrez gain, bide hori nahita hartu da”; eta bakearen arloan “hor ere gauza bera, ezer praktikora heldu barik jarraitzen dugu”.

Eibartar batek Eusko Legebiltzarrean zer duen jokoan galde-tuta, “ospitale bat edo eskilara mekaniko batzuk gehiago edo gutxiago kenduta, egia esan ez da askorik nabaritu. Eguneroko gazetan orain arte moduan jarraituko dugulakoan nago. Dena dela, gai potoloagoetan izango da berriro ere aurrerapausoak egiteko aukera; baina, jakina, borondate politikoa behar-beharrezkoa da halakoetan”.

Azken aldian kazetaritza politikara eman diren jauzien inguruan, Iriondori momentuz ez zaio burutik pasa halakorik egitea: “Alde honetan hobeto gaudela esango nuke. Hala ere, ez da garuko kontua: Javier De Andres PPko komunikazio arduraduna izan zen aurretik. Azken batean, gai berberak jorratzen dira. Oso ondo ikusten dut urratsa ematea, konpromisoa erakusten baitu”.

ASIER ARRIETA
(Publizitate irakaslea EHU-n)**“Politika mezuak aspergarriak dira”**

Azken urteetan publizitate kanpainak, oro har, berdin jarraitzen dutela eta sormen aldetik ez direla onak uste du Asier Arrietak. “Telebista, irrati eta aldizkarietako publizitate kanpainetan irudia, tipografia.. moldatu da baina mezua ez da modernizatu. Mezuak berdin jarraitzen dute, ez dute beste argudiorik aurkitu”. Arriskatzen ez bada arrakastarik ezin dela lortu dio Asierrek.

Arrietaren ustez, zerbait aldatu baldin bada, kalean egiten dena da. “Asko agertzen dira, gehiegi, esango nuke nik, eta behartu egiten gaituzte ikustera. Komunikazioak seduzitu egin behar du eta horrek ez du seduzitzen. Mitinaren formatoa espektakulua da, dena oso neurtuta dago, kode batzuk dituzte eta ez dira hortik irtetzen. Amerikarren estiloa iritsi zaigu, guk hangoa jarraituko dugu baina gure erritmoa daukagu. Lehen politikagintzan zebiltzanak politikoak ziren bakarrik, baina orain pertsonak ere bada, celebrityak dira (adibide moduan, ETBen eman zuten programa). Euskaldunak garen modukoak garenez, hemen nahiko ondo gestionatzen da hori guztia. Zenbat urte pasatuko dira Euskal Herrian Estatu Batuetan gertatzen dena pasatzeko? Denbora pasatu beharko da. Oraindik ikusiko duguna!!!”.

Internetek eta sare sozialek komunikaziorako aukera berriak zabaldu dituzte. “Interesgarriena ez dago informatiboetan, sare sozialetan baizik. Sare sozialetan bakoitzak bere iritzia eman dezake eta politikariek ezin dute dena kontrolatu. Lehen ez zegoen aukerarik baina orain denok dakagu ahotsa”.

Estatu mailan gertatzen ari denaren aurrean jendeak duen egozinarari buruz ere hitz egin digu Asierrek. “Egoera horren aurrean aspertuta gaude, baina ezin ditugu kontzeptuak nahastu. Ezin dugu generalizatu, hemen beste modu batean egiten dira gauzak. Kontu handia izan behar dugu, eta parte-hartzea jaisteak izan ditzakeen ondorioetan pentsatu behar dugu. Bestalde, Podemos bezalako alderdi berri bat hainbeste indarrarekin ikustean beldurra izan beharko lukete beste alderdiek. Komunikazio aldetik ez dut uste ezer egiten dutenik hori ekiditeko”.

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

emansl@emansl.es

**EMAN CONSULTING, S.L.**

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:**
- Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTSOAK:** - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**

**MAILAK TRUST, S.L.**TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- **ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA**
- **ALOKAIRUAK**
- **BALORAZIOAK**
- **SUBENTZIOAK**
- **BANKU KREDITUAK**
- **TRASPASOAK**
- **PERITAJEAK**
- **KREDITU OFIZIALAK**

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901

1.- ZERGATIK DA ONURAGARRIA EIBARTARRONTZAT ZUEN ORDEZKARITZA LEWEBILTZARREAN?
2.- ALDERIK IKUSTEN DUZU HERRI MAILAN POLITIKA EGITEKO MODUAREN ETA HERRITIK KANPORA EGITEKO MODUAREN ARTEAN?

Eva Juez (EAJ-PNV)

1.- Herriko ordezkariak Legebiltzarrean egotea beti da baikorra eta eraginkorra. Urteak daramatzat Eibarko udaletxean zinegotzi karguan eta, denbora honetan, bozeramailea eta koordinatzailea izan naiz. Batzorde ia guztietan parte hartzen egon naiz eta orain esan dezaket zinegotzia izatea benetan eskertzeko modukoa dela. Jendearekin duzun harremana oso gertukoa da eta uste dut gertutasun hori eskatzen dela orokorrean. Hala ere, esperientzia txarren bat bizi izan dut, baina horrelakoetatik ere ikasi egiten da. Egoerak ulertzen jakin behar da. Eibarko jendeari eskerrak eman nahi dizkiot, bai EAJ/PNV bozkatzen dutenei eta baita gainontzekoei ere. Helburu amankomuna dugu: Eibar eta eibartarrak. Gure seme-alabei Eibar hobeto bat lagatzeak ematen dit lanerako indarra egunero. Helburu garrantzitsu hori lortzeko bideetako bat da Eibarren zinegotzia izatea eta Legebiltzarrean egotea, berriz, beste bide bat da. Ordezkaritza politikoko herritarrek ordezkari ditugu eta hori ez dut inoiz ahazten; pertsonak izan dira, dira eta izango dira nere lanaren ardatza. Badi-rudi Legebiltzarrean urrutitua gaudela, Gasteizen, baina egunero egoten gara elkarteekin eta herritarrekin; bertakoekin eta atzeritarrekin. Gaur egun Euskal Erkidego Autonomoan lortutakoa mantentzen laguntzea eta aurrera egitea da nere asmoa.



Elkarlana funtsezkoa da etorkizun oparoa bermatu ahal izateko eta udalean, Legebiltzarrean edo dago-kidan lekuan aurrera pausoak emateko nere esku dagoen guztia egingo dut.

2.- Hasieran, udalean lan egitea eta legebiltzarkidea izatea oso desberdina izango zela uste nuen; baina, funtsean, ez dago alde handirik. Herrian jendearen eguneko arazoak konpontzen ahalegintzen zara eta Legebiltzarrean, legeak egiteaz gain, jendearekin harreman zuzena izaten dugu. Legebiltzarrean batzorde ezberdinak daude, gaika sailkatuta, eta bertako bete-beharra arazoak konpontzea eta bideratzea da. Udalean ere gai desberdinak batzordeetan aztertzen dira. Bai udaletxean eta bai Legebiltzarrean, herritarren arazoak, erronkak, eskaerak, kexak, iradokizunak eta behar-erak erantzuten ditugu. Zuzenean konpondu edo erantzuteko aukera badugu, zuzenean lanean jartzen gara. Eta beste erakunderen baten ardura bada, bideratu eta lagundu egiten dugu. Hasieran antzematen nituen desberdintasunak, egon badaude, baina ez dira handiak eta helburuak berdinak direnez, gustora sentitzen naiz bai udale-txean eta baita Legebiltzarrean ere.

Julen Bollain (Elkarrekin Podemos)



1.- Euskal Herriko hainbat herritako pertsona ezberdinak Legebiltzarrera joateak herri ezberdinetan dauden premiei erantzuteko aukera ematen duela pentsatzen dut eta hori beti da aberasgarria, asmo horrekin joan nahi dugu Legebiltzarrera, gure herrian dauden eskaera eta beharren berri ematera eta, jakina, horientzat erantzun eta konponbideak eman ahal izateko lan egitera. Guk Legebiltzarrean ordezkari-tza izanez gero, eibartarren ahotsa, batez ere txarto pasatzen ari direnena Legebiltzarre-raino eramateko konpromisoa nere gain hartzen dut, han entzun dezaten.

2.- Herri mailan eta herritik kanpora politika egiteko moduan alde handia dagoela uste dut, baina aldi berean alde txikia dagoela ere pentsatzen dut. Hau da, herritarrei eskaintako zerbitzuetan zein hartutako konpromisoe-tan ez dut uste ezberdintasun handirik dago-enik, Eibarren izan zein Gasteizen izan, bie-tan berdinak direla uste dut. Baina udalak dauzkan kompetentziak eta Legebiltzarrak dauzkanak ezberdinak dira eta hori egon dai-teke alderik nabarmenena, toki bien arteko ezberdintasun nagusia. Hala ere, kasu batean zein bestean gure helburu nagusia gehiengo sozial berri baten ordezkari izatea da, horre-tan ez dago ezberdintasunik.

- | SORMENA
- | LAN TALDEA
- | WEB GUNEA
- | KATALOGOAK
- | IRUDI KORPORATIBOA
- | ENPRESAKO BIDEOAK
- | ERROTULAZIOA
- | ARGAZKIAK
- | IRAGARKIAK
- | PACKAGING-A

25

25 años de
 urte Comunicación
 komunikazio Gráfica
 grafikoa Personalizada
 zure neurria
 egiten

EstiloGráfico

Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
 Tel. 943 82 13 00
www.estilografico.com

GUZTIZ HORIZONTALA.
 OHE MOTA MOTOR
 BIKO BERTSIOAN

RELAX- POWER
 LIFT MAS SET
 KALEFAKZIOA

760€

Eskaintza berezia

zuk behar duzuna

EIBAR sofás

Karmen, 15

943 531 261
 688 669 479

1.- ZERGATIK DA ONURAGARRIA EIBARTARRONTZAT ZUEN ORDEZKARITZA LEGEBILTZARREAN?**2.- ALDERIK IKUSTEN DUZU HERRI MAILAN POLITIKA EGITEKO MODUAREN ETA HERRITIK KANPORA EGITEKO MODUAREN ARTEAN?****Igone Lamarain (EH Bildu)**

1.- Une politiko garrantzitsuen atarian gaudela entzuten dugu askotan, baina zergatik da garrantzitsua? Aldaketa politikoa eman daitekeelako, eta pertsonak erdigunean izango dituen Legebiltzara sortzeko aukera handia dugulako.

Orain arte gobernatu dutenek pertsonak helburu dituztela diote, baina, adibide moduan, hemengo pentsiodunen ia % 50ak 600 euro baino gutxiago jasotzen ditu hiler, bazterketa sozialetik gertu bizi dira beraz. PNVren Eusko Jaurlaritzak ez du neuririk hartu nahi, are gehiago, EH Bildu izan zen Pentsio duinen aldeko bozka ematen bakarra Legebiltzarrean. Gainera, badauzkagu proposamenak desoreka sozialik ez emateko, pertsona guztiak duintasunean bizi daitezten. Eta askok ukatzen badute ere, dirua egon badago, borondatea behar da pertsonetan inbertitzeko.

Herri moduan ere, urrats garrantzitsuak eman ditzakegu, orain eta ez bihar. Orain aste batzuk aurkeztu zuen EH Bilduk bere proposamena: pertsonak erdigunean



jartzeaz gain, burujabetza eta bake osoa lortzeko konpromisoak eta neurriak proposatuz.

2.- Herrian egiten dugun politika gertuago dago herritarrengandik, eta normalean, ordezkari politikoak ere bai. Baina kontuan izan behar dugu herrian egiten ditugun politika asko edota hartu nahi ditugun neurri asko beste instituzio batzuen menpe daudela: Foru Aldundiak, Legebiltzara, Madrild. Horregatik, Foru Aldundian zein Legebiltzarrean politika egitean edota legeak onartzean kontuan izan behar dute herri eta herritar askorentzako neurriak hartzen ari direla, baina gehienetan ez da horrela izaten, gutxi batzuentzako mesede diren politikak eta askorentzako kaltegarriak direnak onartzen dituzte.

Eneko Andueza (PSE-EE)

1.- Sozialistok beti dauzkagulako Eibarko hiria eta eibartarrak kontuan: aurreko Legealdian, Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuei egin dizkiegun enmendakinen bitartez Eibarrera 8'1 milioi euro erakartzea lortu dugula ikusi behar besterik ez dago, hiria modernizatu duten inbertsio bihurtu ditugun milioiak izan dira eta geure bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko balio izan dute, ez bakarrik espazio berriez goza dezaketelako baizik eta hiriaren ekonomia suspertu dutelako.

Gainera, EAJ Jaurlaritzara iritsi eta hartu zituen bi lehengo erabakiei buelta emateko indarra egin duen alderdi bakarra izan gara: Amañako Berdintasunaren Pasialekua eta geure hiriari eskualdeaz gainera garrantzia emango dion Ospitala. EAJ bi hauek geratzen ahalegindu zen, baina bata errealitate izatea eta bestea abian egiteko arrazoi bakarra geure ekimena izan da.



2.- Gipuzkoako zerrendaren goi-goiko postuetan goazen bai Miren Gallastegik eta bai nik, biok herri mailako politikan esperientzia daukagu, eta dudarik gabe horrek goragoko administrazioan gabiltzanean asko nabaritzen da. Herria eta bere beharrak goitik behera ezagutzen ditugu eta horrek proposamen zehatzak egitea ahalbidetzen du. Euskadi mailarako egindakoan txertatu dugun programa berezi bat egin dugu eibartarrondako eta horretan, beti egin izan dugun bezala, konpromiso errealista baina ambizio handikoak hartu ditugu, hurrengo legealdian betetzen joateko asmo garbiarekin. Sozialistak esandakoa egin egiten dutenetakoak gara eta.

denolan, s.l.
ENPRESA AHOLKULARITZA

Tf. (4 linea): 943 20 16 80

Fax: 943 20 18 41

denolan@denolan.es

Muzategi, 1 (EIBAR)

Tf: 943 741800 / Fax: 943 741760
P. M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Siurlan
ASEGURU
ARTEKARITZA

Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

Larragest

API
353 zbk.

F. Calbeton, 22-24

INMOBILIARIA
690 610 715

ASEGURUAK
943 200 795



kiTTONBOLIA

Zortea banatu zuen KITTONBOLIAK

Aurten euria ekarri zigun Arrateko Amak bere egunean: goizean goizetik euria Arrate busti zuen eta, horren eraginez, aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili zen egun guztian. Hala ere, eibartarron eta kanpotik etorritako lagun guztion parte-hartzea txalotu beharra dago aurten ere.



Arratera igo zirenak zortearen bila gerturatu ziren KITTONBOLARA, batzuk behin baino gehiagotan, gainera. Erosketa-poltsak, kamisetak, inpresora, otarrak, kantinplorak, kafetera, urdaiazpikoa, telebista, tableta... opari mordoak banatu genituen. Mila esker KITTONBOLAN parte hartu zenuten guztioi, bihotz-bihotzez. Eta mila esker -nola ez!- zuek emandako opariaren bitartez KITTONBOLIA posible egiten duen enpresa, denda, talde, elkarte eta erakunde guztiei ere. Eibarren euskararen alde lan egiten jarraitu ahal izateko ezinbestekoa dugu denon laguntza. MILA ESKER!!!



Arrate egunean euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera izan zenuten aurten ere. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztioi!!!



- +X- HARATEGIA
- AIBE
- AKARA
- ANSA BITXITEGIA
- ARREGI-DOMINGUEZ
- ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR
- ASPE
- ASTELENA TABERNA
- ASTIGARRAGA
- ATHLETIC CLUB
- AVIA AMAÑA
- GASOLINDEGIA
- AVIA AZITAIN
- GASOLINDEGIA
- AZITAIN ERRETEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO
- BENICOBA
- BURBUJAS Y MAS
- CAPI
- CLOSET
- COCA-COLA
- DANDARA
- DEPOR TABERNA
- DIRDAI
- DITARE
- DIVINA VALENTINA
- DOMEINUA.EUS

- EGUREN
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR KIROL ELKARTEA / SD EIBAR




- EIBAR MOTOR
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBARBUS
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL CORTE INGLES



- EL JARDIN DE TULIPA
- EL VESTIDOR
- EMANKOR



- EROSKI EIBAR
- HIPERMERKATUA
- ERREBAL KIROLAK
- ESKARNE



ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danori!

- ESTHER GALARZA
- FARMALUR
- GARBIVOX
- GENOVEVA ARRAINDEGIA
- GERRITEK
- GRATZINA
- GUBY MUTILAK
- GUBY NESKAK
- GURBIL
- HOMME
- HOTEL UNTZAGA PLAZA
- IDOIA BERGARETXE SPA
- IKUSIMAKUSI
- INDUSTRIAS G. ARIZAGA
- INDUSTRIAS MAIL
- IÑAKI HARATEGIA
- IRRITSA



- ITXESI
- IZADI
- IZANE
- JAUREGI
- JAZ-ZUBIAURRE
- JERONIMO
- JORGE-VEGA
- K2
- KANTABRIA JATETXEA

- KANTOI GASOLINDEGIA
- KERALA
- KETESA
- KINKILA
- KOKEIN
- KOLORETE
- KONTENT
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LA CUESTA OPTIKA
- LABORAL KUTXA
- LAKETT
- LEDER
- LIDE
- LOLA'S
- LOOK
- LUIS DEL REY
- MAMACAS
- MARIAN- IDOIA SPA
- MARSÍ
- MAS QUE WAPOS
- MEKA-HOTEL
- MERTXE GAZTA ETA TXERRIKIAK
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA
- NATURAL
- NEURE
- NICE NICE
- NO COMMENT
- OBERENA HARATEGIA
- ORBEA

- OROZ EXCLUSIVAS S.L.
- OTEGI HARATEGIA
- PIRRITX ETA PORROTX



- PITXIAK
- PUBLI-RESA
- SALABERRIA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SELENE
- STYLING
- SU TA GAR
- SUTONDO
- TRIBEKA
- TWINS
- TXIOKA
- TXUTXUFLETAS
- ULMAR
- UMEA
- URDANIBIA
- URKOTRONIK
- VALENCIAGA
- VINOS SOLERA EIBARRESA
- YRAOLAGOITIA
- ZORIONAK KIDS AND PARTY
- ZUBI-GAIN
- ZURKULU

ARRATEN BIZI IZAN GENUENA



Urteroko martxan, bezperatik hasi ziren Arrateko Amaren jaia ospatzeko jarduerak: arratsaldean herri-kirolak izan ziren protagonista santutegi parean eta, horrekin batera, zelaian triki-poteoaren erritmoraz zabaldu zituzten txosnak. Gauean herri-afaria egin zuten zelaian eta Kantabria jatetxeak, berriz, ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen bertso-afaria hartu zuen.

Eta bezperako egitaraua ixteko, Niña Coyote & Chico Tornado, Belako eta Lagrimas de Sangre taldeek bata bestearen atzetik kontzertua eman zuten. Aurten, baina, euria ekarri digu Arrateko Amak bere egunean: goizean goizetik euria Arrate busti zuen eta, horren eraginez, aurreko urteetan baino jende gutxiago ibili zen egun osoan. Hala ere, betiko moduan meza nagusiak, prozesioak eta Kezka dantza taldearen dantzek batu zuten jende gehien eguerdi aldera, arratsaldeko dantza solte txapelketarekin eta Egan taldearen dantzaldiarekin batera. Parranda luzatu nahi izan zuenak, bestalde, horretarako aukera izan zuen Las Tea Party-k zelaian eskainitako saioari esker.

Eta domekan jaien errepikapena hartu zuen Arratek, Kofradixa eta Baserritar Jubilatuen egunean. Eguraldia lagun, egitaraua goizetik abiatu zen, Simon Aldazabal XX. Antxixiketaldiarekin. Meza nagusia eta prozesioa amaituta, paella-lehiaketari ekin zioten eguerdian eta Kantabrian, berriz, baserritar jubilatuentzako bazkaria egin zen. Jaia agurtzeko idi-probak jokatu ziren eta aurten Garikoitz Sistiagaren bikotea nagusitu zen probalekuan.

argazkiak: MAIALEN BELAUSTEGI





Eibarren euskera praktikatzeko taldeak

BERBETANek aurkezpen jendetsua izan zuen

laz bezala, udaletxeko Pleno Aretoan eman diogu hasiera BERBETAN ikasturteari.

Aurten, ezagunak diren BERBETAN OROKORRA, GURASOAK BERBETAN ETA DENDARIAK ETA OSTALARIAK BERBETAN euskera praktikatzeko talde edo guneez gain, ONGI ETORRI BERBETANera harrera eta elkarbizitzarako programa ere aurkeztu dugu.

Eibarko Udalaren izenean, Patxi Lejardi Euskara eta Kultura Zinegotziak eta Idoia Sarasketa Gizartekintzako zinegotziak hartu zuten hitza. Biek nabarmendu zuten, BERBETAN Eibarko ezaugarri eta behar soziokultural eta linguistikoei erantzuteko diseinatuta dagoen heinean, eraginkorra izango den konfidantza dutela. Ildo beretik jarraitu zuen Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria den Jokin Azkue ere. BERBETAN programa urtetik urtera behar espezifikoei egokitzeko egindako esfortzua nabarmendu zuen. Euskararen erabilera arlo akademikoa gainditu eta arlo sozialean hedatzeko tresna baliagarria dela apimarratu zuen.

...eta kitto! Euskara Elkartearen aldetik programa hau garatzeko orduan instituzioen babesaz gain, herritar, herriko elkarte, kirol talde, ikastetxe, kultur elkarte, denda, taberna... etabarren elkarlana, partaidetza eta babesza ezinbestekoak direla azpimarratu nahi izan genuen.

Berbetanek 2015/2016 ikasturtean izan duen garapenaren berri eman ostean, 2017rako erronkak edo helburuak ere azaldu zituzten ...eta kitto!ko teknikariek.

Ostean, Marian Pacheco (GURASOAK BERBETANeko partaidea), Julio Zevallos (GURASOAK BERBETANeko partaidea), Mikel Azpiroz (BERBETAN OROKORREKO partaidea), Jone Morras (Immigrazio Teknikaria) eta Mballo Ndiaye-k (Senegal Elkarteko kidea) euren iritzi eta esperientzien berri eman ziguten.



Berbetanek garapen handia izan du

2002an euskara praktikatzeko guneak eta taldeak eskaintzeko asmoarekin sortu zen proiektua garatuz eta herriko behar eta ezaugarriekin moldatuz joan da. Gaur egun, euskararen erabilera bultzatzeko, euskal kulturara hurbiltzeko, euskara esparru sozial eta ekonomiko berrietara hedatzeko eta herritarren arteko harreman sareak zabaltzeko eta elkarbizitza sustatzeko proiektua da.

la hamabost urteko ibilbidea egin dugu eta urte guzti hauetan euskara praktikatzeko aukerak zabaltzen joan gara; horretarako propio sortutako taldeetan (BERBETAN OROKORRA), guraso talde/lagunartean (GURASOAK BERBETAN), edota herriko denda eta tabernetan (DENDARIAK ETA OSTALARIAK BERBETAN).

2016/2017 ikasturtean beste pausotxo bat eman nahi izan dugu kultur aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko, ONGI ETORRI BERBETANera programarekin. Euskara eta euskal kultura banatzen gaituen zerbait izan beharrean elkarbizitzarako zubia izan dadin.



MARIAN PACHECO (Berbalaguna)

"Esperientzia paregabea izan da niretzat, euskara beldur barik erabili, lagun berriak egin eta oso ondo pasatzeko aukera eskaintzen duen programa da. Erraza da parte hartzea, ez duzulako beste munduko ezer egin behar eta aldi berean oso betegarria delako".



JULIO ZEVALLOS (Berbalaguna)

"Ni Perutik etorri nintzen Eibarrera, Urkizura hain zuzen ere. Seme-alabak ditut eta bai geu zein seme-alabek integratuta egotea nahi genuen. Emaztea eta biok izena eman genuen euskaltegian eta parkera joaten ginenean guraso euskaldunekin elkartzen ginen. Gure kasuan talde naturala erabiltzen dugu, gure ohiko lagunekin mintzapraktika egiteko".



MIKEL AZPIROZ (Berbalaguna)

"Euskara praktikatzeko beharra edo gogoia dutenekin, hau da, gizartearekin konpromisoa hartu behar dugu euskaldunok. Esfortzua egiten duten horiei erraztasunak ipini eta ezer gutxi kostatzen da astean tartetxo bat hartu eta kafe edo zurito bat hartzea. Denborarekin lagunak bihurtu gara, eta ekintza osagarrietan parte hartzeaz gain, beste plan batzuk ere egiten ditugu; afariak, irteeraren bat... Koadrilla normal batek egingo lukeen bezala".



MBALLO NDIYAE (Senegal Elkartearen kidea)

"Elkarrekin gauzak egin, Eibarko gizartearen integratu eta parte hartzeko gogoz beteta gaude. Baina ez da erraza guretzat, dena da desberdina: kultura, hizkuntza, ohiturak, eguraldia, ... Hala ere, programa honen bitartez, lagun berriak ezagutu eta gure auzoan zein herrian elkarbizitza hobetuko dela uste dut".



TABERNA eta DENDETAN EUSKARAZ

✓ Berbetan egitasmoak euskararen erabilera bultzatzea du helburu eta horretarako dendari eta tabernarien parte-hartzea ezinbestekoa da. Naturaltasun osoz taberna edo denda bertan euskara erabiltzeko aukera izatea nahi dugu.

✓ EUSKARAZ PRIMERAN!

Euskara maila ez da berdina tabernari edo dendari guztien artean, baina hori ez da oztopo lehen berba behintzat euskaraz egin ahal izateko.

Lehen berba euskaraz egiteko konpromisoa gure herriko 360 establezimenduk hartu dute. Era guztietako denda eta tabernak dauzkagu, baina baita beste era bateko establezimenduak ere, hortz klinikak, akademiak, tailer mekanikoak... eta abar.




iraileko agenda

- **IRAILAK 16:** Berbetan jaialdia.
Urkizu eskolan. 17:30-20:00.
- **IRAILAK 21:** "Txoborro magoa". Urkin. 17:30.
- **IRAILAK 23:** "Non da elefante gorria?".
Legarren. 22:00.
- **IRAILAK 24:** "Trotamundos zirkoa". Legarren. 17:00.
- **IRAILAK 27:** "Kidam magoa". Amañan. 17:30
- **IRAILAK 28:** "Tor magoa". Urkizun. 17:30

IRAILAK 16 (ostirala) Urkizuko eskolan

berbetan jaialdia



17:30-19:00
- PUZGARRIAK
- ESKULAN-TAILERRAK

19:00-20:00
**MUGI-MUGI
DISKO FESTA**



GIRO NATURAL ETA INFORMALEAN EUSKARA PRAKTIKATZEKO TALDEAK

- ✓ Euskararen erabilera bultzatzeko asmoarekin sortu genuen.
- ✓ Gaur egun ia 130 parte-hartzaile ditu 22 taldetan banatuta. Euskara praktikatzeko taldeak eraten ditugu; praktikatzeko beharra eta soltuz hitz egiten duten lagunak elkartuz astean behin (ordu eta erdiz).
- ✓ **TALDE NATURALEK** ("kuadrilla" edo lagun taldeek) ere parte hartzen dute, euskara erabiltzeko konpromisoa hartzen badute. 22 taldetik 10 talde naturalak dira.

Antolatzaileen hitzetan, "astean tartetxo bat atera eta ezezagunekin elkartzea oztopo izan zitekeela ikusirik *kuadrilla oso batek izena emateko aukera ere badago. Beti ere kuadrilla horrek euskararekiko ze konpromiso hartzen duen zehazten badu. Adibidez: ostiraleko poteoan lehen bi poteak euskaraz, umeei bokadilloa eman bitartean, zapatu goizeko mendi buelta...*".

Garrantzitsua da, talde naturaletan "EUSLE" lana egingo duen norbait egotea. Hau da, astebeteko edo hilabeteko iraupenez, taldekideen artean txandakatzen, nahiz eta taldekoek gazteleraz egin euskarari eusteko ardura izango duen lagun bat egotea.

10 talde natural daude momentu honetan parte hartzen.

- ✓ **EKINTZA OSAGARRIAK:** Izen-ematearekin batera, ikasturte osorako eskaintza zein den jakinarazi dugu aurten ere: irteerak, hitzaldiak, ikuskizunak, lehiaketak... etabarrez osatutako egitarau zabala.

2016/2017rako ERRONKAK

- ✓ **Auzoetan** bizi direnengana heltzea.
- ✓ **Herritarren inplikazio handiagoa** lortzea, euskara erraztasunez hitz egiten dutenak ere parte hartzera animatzea. Denda eta tabernetara goazenean eurok bezala, geuk, herritarrok ere lehen berba euskaraz egitea.
- ✓ Denda zein tabernetan **euskararen erabilera handitzea** eta establezimenduetatik adierazi dizkiguten beharrei erantzun ahal izatea (itzulpenak, euskara klaseak, motibazio saioak...)

NOLA EMAN DEZAKET IZENA BERBETAN-en?

- ✓ ...eta kitto! Euskara Elkarteko bulegoan (Urkizu 11, solairuarterean), etakitto.eus webgunean, Udaleko Euskara Zerbitzuan, AEK zein Udal euskaltegian edota Haurreskola, HH eta LHko ikastetxe guztietan.
- ✓ Banaka zein taldeka, hau da "kuadrilla" edo lagun talde moduan eman daiteke izena.
- ✓ **DOANekoa** da.



Harrera eta elkarbizitarako programa Eibarren
Programa para la acogida y convivencia en Eibar

ONGI ETORRI BERBETANera, ZER DA?

- ✓ Aurten programa berri bati emango diogu hasiera herrian ikusi diren harrera eta elkarbizitza sustatzeko beharrei erantzuteko.
- ✓ Alde batetik, programa hau Eibarko auzo desberdinetan eramango da aurrera, AMAÑA, URKI eta URKIZU auzoetan BIZILAGUN TALDEAK eta SAREAK sortuz.
- ✓ Bestalde, euskara eta euskal kultura eta elkarbizitza sustatzeko asmoz, hitzaldiak, irteerak eta jaialdiak eskainiko dira, beti ere bi norabideetan, hau da, elkarlanean.
- ✓ Proiektu berri honek Eibarko ANIZTASUN KULTURALA ezagutzeko, lagun berriak egiteko eta elkarbizitza sortzeko aukera emango digu.

NOLA EGINGO DUGU?

- ✓ Etorkin berriak, auzoan integratuta daudenak eta bertan jaiotakoak aintzat hartuko dituen taldeak sortuko dira. Talde bat (batzuk) auzo bakoitzean, pertsonak eta elkarteak inplikatu dituenak.
- ✓ EKINTZA OSAGARRIAK: parte-hartzaileen nahi eta beharrei erantzun nahian ekintza osagarriak ere egingo dira, hala nola, irteerak, ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak...

NOLA EMAN DEZAKET IZENA?

- ✓ ...eta kitto! Euskara Elkarteko bulegoan (Urkizu 11, solairuarterean), etakitto.eus webgunean, Udaleko Immigrazio Sailan eta baita HH eta LHko ikastetxe guztietan.
- ✓ Izena ematerakoan garrantzitsua da parte-hartzea zein auzotan gauzatu den adieraztea: AMAÑA, URKI edo URKIZUN.
- ✓ DOANekoa da.



HERRITARREI DEIALDI ZUZENA:

“esan bezala auzoan integratuta eta bertan jaiotako lagunak ere beharko ditugu taldeak eratzeko, beraz lerro hauek aprobetxatu nahiko genituzke herritarrei deialdia luzatu eta parte-hartzera gonbidatzeko”



Eibartik pasatutako 42 kirolari 1. eta 2. A Mailetan

Eibar Foball Taldeak jokalaria asko izan ditu azken denboraldiotan, taldea goitik behera berritu izan delako behin baino gehiagotan. Ez da orain duen taldearen kasua, ia jokalaria guztiak lotuta baititu hurrengo denboraldirako. Horregatik, hemendik pasatutako askok eta askok goi mailako beste talde batzuetan jokatzen dihardute gaur egun. Horrela, Ipuruatik pasatutako 20 lagun daude Liga Santander 1. Mailan: Mikel Oiarzabal eibartarra, Markel Bergara, Yuri Berchiche, Zurutuza eta Raul Navas (Reala); Markel Susaeta eibartarra, Eneko Boveda, Iraizoz eta Amorrortu teknikaria (Athletic); Manu Garcia, Toquero, Pantic eta Sergio Fernandez kirol zuzendaria (Alavés); Cuellar eta Lillo (Sporting); Albentosa eta Gaizka Garitano entrenatzailea (Deportivo); Keko (Málaga); Manu Herrera (Betis); eta Asier Garitano entrenatzailea (Leganés). Aurtan LaLiga 1, 2, 3 deitzen den 2. A mailan, bestalde, honako 22 ordezkari ditugu: Irureta, Javi Ros, Lanzarote eta Angel (Zaragoza); Ansotegi, Lago Junior eta Lekic (Mallorca); Iñaki Ruiz de Galarreta eibartarra eta Manu del Moral (Numantzia); Morales eta Natxo Insa (Levante); Kijera eta Terrazas entrenatzailea (Mirandés); Alex Albistegi eibartarra (Reus); Nestor Susaeta eibartarra (Oviedo); Jordi Calavera (Lugo); Pere Milla (UCAM Murtzia); Elgezabal (Alcorcon); Urko Vera (Huesca); Eddy Silvestre (Cadiz); Piovaccari (Córdoba); eta Rafa Lopez (Valladolid).

Urpekoak

Klub Deportiboak 3 izarreko urpekaria izateko aukera eskaintzen duen ikastaroa antolatuta du. Irailaren hirugarren astean hasiko da eta klase teorikoak Deporren bertan emango dira; saio praktikoak, bestalde, itsasoan. Izena Deporreko bulegoetan eman daiteke eguenetan (19:00-20:00) edo 619468046 telefono zenbakira deituta.

Xakea

Irailaren 30ean amaituko da Xake Eskolan izena emateko epea; klaseak, bestalde, urriaren 14an hasiko dira. Aurreko ikasturtean bezala, bi talde osatuko dira: orain hasiko diren berriena (horiek barixakuetan jardungo dute, 17:30etik 18:30era) eta aurretik ibilita jarraituko dutenena (horiek egun berean izango dute hitzordua, baina 18:30etik 19:30era arte). Matrikula xakea@deporeibar.com helbidean egin daiteke edo Deporren barixakuetan (18:30-19:30).



Beñat Gomez "Beltza" garaile Arrateko hiru-txirlotan

22 bolarik hartu zuten parte Arrate egunean bertako bolatokian jokatzen txapelketan eta Beñat Gomez izan zen bakarra sei txirloak etzaten. Txirilo bakarrera geratu ziren Josean Urkia eta Bittor Rodriguez, bigarren eta hirugarren postuetan hurrenez hurren. Felix Gomez "Beltza" irabazlearen aita laugarrena izan zen, hiru txirloekin, eta Asola Berriko lau ordezkarien atzetik geratu zen, bosgarren postuan, Jose Antonio Nuñez "Txiki" Soralezeko San Andres bolatokiko ordezkaria.

Ikuskizun polita Debabarreneko Concepto Egileren aurkezpenean

Debabarrena areto-foballeko lehen taldea bere zaletuen aurrean aurkeztu zen aurreko asteburuan Elgoibarko IMHko harmailak beteta zeudela. Aurkaria ez zen nolanahikoa eta ondo erakutsi zuen hori, amaieran 0-3 irabazita. Morenin galiziarrek zuzentzen duen Toulouse Frantziako 2. Mailako taldeak goi mailako erritmoa

jarri zion neurketari eta Concepto Egilek ondo erantzun zion erronka horri; hori bai, une erabakigarrietan zehatzagoak izan ziren Toulousekoak, Mikel Debabarrenakoen atezainak lan bikaina egin bazuen ere.

Domekan hasiko dute Liga elgoibartarrek, eguerdiko 12:00etan IMH-n bertan Zaragozako Nuestra

Señora del Portal hartuta. Bestalde, Suman-do+Gehituz proiektuaren barruan, Debabarrenak Gasteiz Futsal eta Federico Baraibar Gasteizko taldeekin laura igo ditu hitzarmendutako kopurua, aurretik egoera horretan zeuden Elorrioko eta Eskoriatzarekin batera.



ITZIAR ARISTONDO AMUTXASTEGI

Bigarren urteurrena: 2014-IX-17

*"ZURE irribarre eta samurtasuna
betiko izango dira GURE ARTEAN"*

BERE ALDEKO MEZA ospatuko da irailaren 17an (zapatua), arratsaldeko 19:00etan, Karmengo Amaren parrokan.



Asteburuan hasiko da foball-zaletuen KirolBet liga

Azken urteotan bezala, hamalau taldeen arteko liga abiatuko da bihar Unbeko zelaietan. Izenetan ere aldaketa bakarra dago, Bar Arkupek Fontaneria Mujikaren tokia hartuko du-eta. Tankemans da gaur egun txapelketan urte gehien daramatzana, Durangoen aurretik. Azken talde horretako %90 durangarrak dira eta, beste taldeetan eibartarrak nagusi diren arren, badira "Ber-

gara, Azpeitia, Ermua eta beste herri batzuetako jokalariek". Talde bakoitzak 28 jokalariz ditzake topera jota. Bihar honako partidua jokatuko dira: Durango-Ipur eta Areto-Alkideba 09:00etan, Esmorga-Txoko 10:30ean eta Azkena-Tankemans 12:00etan. Etzi, bestalde, hauek jokatuko dira: Sporting-Kontent 09:00etan, Ez-Dok-Garajes Garcia 10:30ean eta Arkupe-Slow 12:00etan.



Hamalau taldeetako ordezkariak martitzenean jaso zuten denboraldi osorako dokumentazioa Isasiko KirolBet joko-apostuen ordezkartzan.



Escudería Eibarko talde bat Frantziako Rally Txapelketan

Iñaki Narbaiza eta Unai Etxeberriak atzo hasi eta bihar arte iraungo duen Vosgien Rallyan (Alsaciako eremuan) parte hartuko dute, Frantziako Txapelketarako puntuagarria den proban eta 208 Rally Cup koparen barruan lehiatuko dute. Kopa hori erreferentzia da mundu mailan, handik eta hemendik etorritako goi mailako pilotoei parte hartzen dutelako bertan. Nazioarte mailako esperientzia hori oso interesgarria izango da Escudería Eibarko kideentzat, lehen kilometroetatik erritmo egokia bilatze lan horretan aurkituko baitute proban lehiakorrek izateko gakoa. Euren helburu nagusia? Gerardmer herrian izango den azken parkera ahal den hobetoen sailkatuta iristea.

Pilota denboraldi berriaren aurrean

Gipuzkoako Kluben Arteko txapelketa hasiko da asteburu honetan eta hor senior mailako bi bikotek hartuko dute parte: Narbaiza-Gaztañaga eta Unamunzaga-Lantz. Astelena izango dute lehenengo partidua gaur, 19:15ean hasiko den jaialdian. Fuentes-Abalos kadete mailako bikoteak Donostiako Herriaren jokatu du gaur torneo berean. Infantil mailako pilotariei, bestalde, Gipuzkoako Bakarkako Errendimendu Txapelketan izateko hilabete bat besterik ez zaie geratzen, gogor entrenatu eta sasoiari jartzeko. Eibarko Klub Deportiboko pilotari federatu guztiak aurreko astean hasi ziren entrenatzen eta aste honetan heldu zaie ordua pilota eskolakoei (martitzen eta eguenean izaten dira, 19:00etatik 19:00etara).

Flysch Beltza jokatu da 24an

Urbat igeriketa taldeak antolatzen duen Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia datorren asteko domekan, hilaren 24an, jokoan ipiniko du hirugarren edizioa. Zeharkaldi luzea 10:30ean hasiko da Saturraranetik eta motza ordubate geroago Mutrikutik. Autobusa antolatuko dute Debatik: 09:15ean irtengo da proba luzean parte hartuko dutenentzat eta 10:30ean motzean jardungo dutenentzat. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 22ra arte. Behin proba amaituta, hainbat opari zozketatuko dira.



MILA BARRERO SARABIA

Uztailaren 25ean hil zen

“Maite zaitugu” (ZURE SENIDEAK)

Haren aldeko meza ospatuko da hilaren 18an (domekan), 12.00etan hasita, Karmengo Amaren parrokiari



J. ANTONIO FERNANDEZ
(argazkilaria)

- Erakusketa ikustera doanak zer aurkituko du?

Las Merindades izeneko eskualdean hazten diren hainbat lorei egindako argazki koloretsuak, nire liburua osatzen duten argazkietatik batzuk aukeratu ditut eta horiek prestatu dut erakusketa.

- Zergatik aukeratu dituzu eskualde horretako lorak zure lehen libururako zein erakusketarako?

Barakaldokoa izan arren, gurasoak Bizkaiarekin muga egiten duen Burgos iparraldeko eskualde horretakoak ditut eta betidanik izan dut lotura handia haien herriekin, gaur egun ere ahal dudan guztietan joaten naiz. Horrez gain argazkilaria zaletua ere banaiz eta, beraz, nire zaletasun biak, gurasoen herri inguruko men-

“Orduak eman nituen lurrean botata lorei argazkiak egiten”

Urriaren 29ra arte "Flores de las Merindades. Un año de fotografía" izenburuko erakusketa egongo da ikusgai El Corte Inglés-eko ekitaldi aretoan, 11:00etatik 21:00etara. Jose Antonio Fernandez Perez argazkilaria erakusketaren izenburu berarekin liburua eman zuen argitara. Barakaldoko Denbora argazkilaritza elkarteko kideak urtebeteko lanaren ondoren Burgos iparraldean dagoen Las Merindades eskualdeko lorei egindako argazkiak 220 orrialdetan bildu zituen eta horietako 60 bat ingururekin gurea ekarri duen erakusketa osatu du.


dietan ibiltzea eta argazkiak egitea uztartzeko arazorik ez dut izan. Liburua egiteko kontua pentsatu barik, berez sortu zen. Beste askotan bezala herrira aste-buru pasa etorri nintzenetako batean lagunek hordagoa bota eta, horrela, beste barik animatu nintzen liburua egitera.

- Eta nolako lana izan zen?

Urtebete eman nuen argazkiak egiten. Mendira joan, lorak aurkitu eta bakoitzaren argazkiak egiteko orduak eman nituen lurrean botata. Hala ere asko gozatu nuen, mendian gora eta behera ibiltzea asko gustatzen zait eta. Etxetik irtetzen nintzen bakoitzean buruan helburu finko bat izan barik joaten nintzen, mendian ibiltzera, bidean aurkitzen nituen lorei argazkiak egitera, beste barik. Gutxi gora behera lora batzuk

non dauden banekien, baina beste batzuk oso txikiak dira eta horiek aurkitzeko arreta gehiago ipini behar izan nuen. Bestela ez dut aparteko zailtasunik izan, gustora egindako lana izan zen. Argazki guztiak Nikon D300 kamerarekin hartutakoak dira eta denak makro objektiboa erabili egin nituen. Bestalde, ni ez naiz biologo edo naturalista, argazkietan ikusten diren loren sailkapena egiteko horretan aditua den ezagun batek lagundu zidan, berakin batera izendatu nituen argazkietan ikusten diren lorak. Egia esateko, lanean hasi nintzenez ere nuen pentsatzen emaitza nolakoa izango zen, baina behin liburua osatuta eta erakusketak egiten hastean pozarren nago jendeak esaten dizkidan gauzekin, benetan oso esperientzia positiboa ari da izaten.

Eibartarrak bikain Debako Aire Libreko Lehiaketan



Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak, kostaldeko herri horretako Haitz-Haundi pintura elkartearekin elkarlanean, aurreko zapatuan antolatutako XLVII. Aire Libreko Pinturaren Lehiaketan Eibarko bi artista saritu zituzten: Arrateko Kittonbolarako bere margolan bat oparitu digun Esteban Orozek bigarren saria eskuratu zuen eta, hori gutxi balitz, Francisco Perezek M^a Esperanza Chavarri saria bereganatu zuen. Lehiaketako irabazlea, bestalde, Juan Carlos Aresti bilbotarra izan zen eta ekitaldian parte hartu zuten artista guztien lanak etzira arte (irailak 18) Agirre Jauregiko erakusketa-gelan egongo dira ikusgai.



Indianokua martxa betean

Aurreko astean hasi ziren Indianokua gaztelekua ohiko martxan zabaltzen. Eguraldi ona aprobetxatuta, kanpo jolasekin eman zioten ongietorria ikasturte berriari. Muzategi kaleko gaztelekuak aurreko kurtsoko ordutegiari jarraituko dio ikasturte honetan ere: barixakuetan, 16:30etik 21:00etara zabalduko dute; zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara; domeka eta jai egunetan 17:00etatik 20:30era; eta martitzenetik eguenera bitartean 18:00etatik 20:00etara; astelehenetan itxita egongo da.






Sanchez-Barbak zuzentzen duen bandak bost pieza eskainiko ditu etzi. **Leire**

Musika bandaren kontzertua domekan

Kurtso berriko lehen kontzertua emango du domekan Cielito musika bandak, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldian honako egitarauari jarraituko diote: "Paquito el chocolatero" (pasodoblea, G. Pascual), "Vizcaytik Bizkaira" (obertura, R.M. Azkue), "El tambor de Granaderos" (obertura, R. Chapi), "Man of La Mancha" (aukeraketa, M. Leight) eta "Beach Boys on Stage" (aukeraketa, J. Moss-ek moldatuta). Bestalde, euririk egiten ez badu, kontzertuaren aurretik, 11:30ean kalejira egingo dute.

Argazki erakusketak tabernetan

Irailaren 30era arte hiru argazki erakusketa egongo dira ikusgai beste horrenbeste tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik: Manu Barreireoren "Miradas y almas" izenburukoa Klub Deportiboan, Joan Parreraren "El pas del temps" Portalea tabernan eta Jose Luis Irigoienaren argazki erakusketa, berriz, Ambigun. Azken honen argazkiak Eibartik kanpora ere ikus daitezke, urriaren 13ra arte "Ebakinak" izenburuko erakusketa Almenaran (Castellon) zabalik izango da eta.



Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak hileko hiru erakusketa prestatzen ditu argazkilari ezberdinen lanekin eta interesa duen edozeini 2017an erakusketa egiteko aukera eskaini nahi diote. Norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero, jlrigoien@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Energia berriztagarrien azoka

Energiari eskainitako azoka hartuko du Untzagak gaur eta bihar, udalak antolatuta. Asmo nagusia energia berriztagarrien inguruko informazioa ezagutaraztea da eta horretarako ikasleendako bisita gidatuak, hitzaldiak, umeendako tailerrak eta beste hainbat egingo dira. Gaur arratsaldean bi hitzaldi emango dituzte: 17:30ean Erika Martinez (Goien) argindarraren fakturaren inguruko zalantzak argitzen ahaleginduko da. Eta 18:30ean Francisco Vicandi Unanue, Eibarko Ingeniaritza Eskolako irakasleak mugikortasun elektrikoari buruz egingo du berba.



"Amazonia" ikuskizuna Coliseoan

Irailaren 29an Boliviako Ensamble Moxos taldeak "Amazonia", herrialde horretako dantza eta musika ikuskizuna taularatuko du Coliseo antzokian, 20:30ean. Raquel Maldonadok zuzenduta, ikuskizunean parte hartzen duten taldekide guztiak San Ignacio de Moxop hiriko indigena gazteak dira. Sarrerak 5 euro balio du eta aldeztu aurretik zein egunean bertan erosteko aukera dago.



AMAIA BARBERENA AMILLATEGI II. URTEURRENA

*"Zurekin bizitako uneak
gurekin geldituko dira
betirako gure bihotzetan"*

ZURE LAGUNAK





LIERNI IBARGUTXI

Antidotoa

Ez dakit zergatik den, baina badira urte batzuk uda eta "ikasturte berriaren" artean alderik apenas igartzen dudak. Pentsatzen hasita, udako hilabeteek eta oporrek bat egitea (edo, zuzenean, oporrek) aspaldi desagertutako fenomeno da askorentzat. Bakazioak izan ezker, ez ditugu guztiok udan, aldi berean, izaten. Mundu globalizatu likidoan mugak ezabatu egiten direla esaten da... Batzuetan, continuum mugagabe batean bizitzaren sentsazioa izaten dut, izan ere. Hasiera eta amaiera gabeko denbora (denbora eza?) batean bizi bagina bezala. Errepikapen baratu batean. Sentsazio honen kontrako antidotoa argazki album batean aurkitu dut orainsuan. Aspaldiko eta ez hain aspaldiko irudiak begiratzen hasi naizela, baina, harritu egin nau zein eder ikusten ditudan erretratuetako guztiak. Horrelako distira bat begietan, bristada ardurabako bat aurpegiaren eta gorputzetan. Ez da lehen zatar ikusten nituela. Inoiz igarri barik nengoen zerbait da oraingoa, hala ere. Edertasuna esan dut baina, hori baino gehiago, gaztetasuna dela konturatu naiz: lehen ez bezala, orain gazte ikusten ditudala argazkietan agertzen direnak/garenak. Poeta hilen kluba (1989) pelikulako eszena hura ekartzen didate gogora, erretratuetako gazteek carpe diem xuxurlatzen ari balitzaizkit legez.

Udazkenerako 10 ikastaro UEU-n

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) udazkenerako eskaintza aurkeztu zuen eguaztenean. Urritik abendura bitartean 10 ikastaro eskainiko dituzte Eibarren, horietako bost Markeskuan eta beste bostak, berriz, on-line. Mari Karmen Menika, UEUren Ikastetxe Nagusiko arduradunaren esanetan, "ezagutza eta informazioaren gizarte-*an gaude eta ikaskuntza bizitza-ziklo osora zabaldu da. Horrek formazio eta trebakuntza premia berriak ekarri ditu eta UEUk egindako eskaintza formatiboak premia horiei erantzun die, etengabeko prestakuntzaren barruan ezagutzak berriitu, eguneratu eta trebetasun berriak jasotzeko aukera eskaintzen baitu".*

Eibarko ikasgelako eskaintzaren barruan ikastaro hauek emango dituzte: "Videogametik bideo-jokora. Bideo-jokoak euskarara itzultzen", "Pedagogia sistemikoa eguneroko hezkuntza-praktikan", "Herrigintza Feminismotik", "Kulturak, hizkuntzak eta lurraldeak: kultur aniztasunaren begirada" eta "Python programazio-lengoaia: ikasi praktikaren bidez". Eta on-line, berriz, beste hauek: "Lurraldea ulertu eta aztertzeko beste modu bat. GIS librea eta Geoprosesamendua (QGIS)", "R software as-



kearen erabilera Natur Zientzietako estatistiketan", "Euskal Literaturaren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzan", "Ordenagailuak programatzen txiki-txikitik" eta "Euskal Herriko oroimen historikoa". Matricula epea zabalik dago eta www.ueu.eus webgunearen bitartez egin daiteke edo, bestela, telefonoz, 943 82 14 26 zenbakira deituta. Bestalde, Eibarren zein Elgoibarren erroldatuta daudenen-tzat diru-laguntzak emango dituzte aurtien ere.



Bularretik Mintzora egitasmoa ikastetxeetan

Galtzagorri elkarteak sortutako Bularretik Mintzora programa herriko ikastetxeetan landuko dute ikasturte honetan. Ume txikien irakurketa ohituren sustapena eta euskararen transmisioa helburutzat duen proiektua iaz San Andres ikastetxean landu zuten eta, horien esperientziarekin animatuta, aurten Amaña, Arrateko Andra Mari, Juan Antonio Mogel, Aldatze eta La Salle ikastetxeetan ere martxan ipintzea erabaki dute. Hori dela eta, euren ikastetxeetan hasi berri den ikasturtean Bularretik Mintzora egitasmoa martxan jarri ahal izateko, irakasleek formazioa jasotzen dihardute egunotan. Egitasmoa udalaren eta ikastetxeen lan-kidetzaren bitartez bideratuko dute eta, arduradunek aurreratu dutenez, "orain irakasleen txanda da, baina udazkenak aurrera egin ahala gurasoek ere izango dute aukera egitasmo honekin lotura duen formazioarako tailerrak jasotzeko".


KZguneko urriko eskaintza prest

Urrirako hainbat ikastaro prestatu dituzte KZgunean. Egun eta ordutegi zehatzari jarraituta emango dituen artean, besteak beste, hauek daude: "Oinarrizko Internet" (nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko), "Smartphonak eta tabletak" (Android sistema eragilea darabilten tablet/smartphonak erabiltzen ikasteko), "Ofimatika" (LibreOffice Writer, Calc eta Impress programak erabiltzen ikasteko), "Google Apps" (Google aplikazioak) eta "Gmail: mezularitza elektronikorako tresna bat baino gehiago".

KZguneko arduradunek aditzera eman dutenez, "ikastaroren bat interesatuz gero, baina planifikatutako datetan parte hartzerik ez badago, itxaron zerrendan izena eman daiteke, interesatzen den ordutegian ateratzen denean guk deitzeko". Bestalde, KZgunean ematen dituzten ikastaroez gain, norberak bere etxean egiteko moduko beste ikastaro batzuk ere eskaintzen dituztela gogorarazi nahi dute, eta denak doan ematen dira.



eguraldia (EUSKALMET.NET)



Marraskilo Tour SORALUZEN

Soraluzeko Marraskilo Tour mendiko ibilaldien X. urteurrena beteko da bihar. Parte-hartzaileentzat irteera handia (35 kilometro) goizeko 06:00etan izango da eta txikia (19 kilometro), berriz, 08:00etan. Izen-ematea egiteko eta informazio osoa ikusteko www.kirolprobak.com helbidera sartu edo mendi taldearen bulegoetan galdetu.



ELGOIBAR Bi Erroberetan

Domekan egingo da Elgoibar Bi Erroberetan, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen duen irteera. 10:00etan Kalegoen plazatik abiatuko dira, Sallobenteraino joateko bizikletaz. Kalegoenera bueltatuta eta plazan txorizo egosia eta freskagarriak banatuko dituzte antolatzaileek. Horrekin batera Molto motoekin, trizikloekin eta bizikleta txikiekin egiteko lasterketa eta ginkana ere antolatu dituzte.

hildakoak

- Alejandro Honrubia Cabero. 95 urte. 2016-IX-4.
- Rafaela Iturbe Larrañaga. 85 urte. 2016-IX-5.
- Enrique Lorenzo Montero. 87 urte. 2016-IX-5.
- Edurne Garaizabal Isasti. 88 urte. 2016-IX-6.
- Gloria Sanz Ruiz. 94 urte. 2016-IX-6.
- Iñaki Zenarruzabeitia Gorostiza. 57 urte. 2016-IX-6.
- Luciano Buendia Valera. 89 urte. 2016-IX-6.
- Angela Gisasola Yarza. 98 urte. 2016-IX-7.
- Jose Carlos Hernandez Andres. 60 urte. 2016-IX-7.
- Victorina Cebrian Cebrian. 98 urte. 2016-IX-8.
- Leire De los Toyos Ibarrola. 41 urte. 2016-IX-9.
- Pako Sarasketa Aranzeta. 89 urte. 2016-IX-10.
- Yosune Larrabe Irusta. 80 urte. 2016-IX-12.
- Ignacio Ramos Gonzalez. 87 urte. 2016-IX-13.
- Jose Manuel Cagigas Portilla. 68 urte. 2016-IX-14.

jaiotakoak

- Haizea Belda Gomez. 2016-VIII-29.
- Markel Tardio Rodriguez. 2016-IX-1.
- Lorea Rocio Ruiz Arce. 2016-IX-1.
- Marwa Aghbalou. 2016-IX-4.
- Oier Zuazua Alberdi. 2016-IX-5.
- Omar Essabbar. 2016-IX-5.
- Yunes Hamdi Mohamedfadel. 2016-IX-7.
- Iraitz Alvarez Gordillo. 2016-IX-12.

farmaziak

- Barixakua 16
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Zapatua 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 18
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Astelehena 19
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 20
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Eguaztena 21
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Eguena 22
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 23
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

AURREKOAREN EMAITZA

SUDOKUA

3	8	5	1	6	4	9	7	2
1	4	2	7	8	9	6	3	5
7	9	6	3	2	5	1	8	4
5	3	1	2	4	7	8	6	9
9	7	4	8	1	6	2	5	3
2	6	8	9	5	3	4	1	7
6	2	7	4	3	8	5	9	1
4	5	9	6	7	1	3	2	8
8	1	3	5	9	2	7	4	6

	1		6		3	5		
		3		5				
7		4	2			9		
	3							
2				8				1
						9		
		6			1	2		9
				3		8		
		7	4		9		5	

Barixakua 16**BERBETAN JAIALDIA**

17:30/19:00. Puzgarriak eta eskulan-tailerrak.

19:00/20:00. Mugi-Mugi disko festa. Urkizuko eskolan.

Zapatua 17**LEGARREKO JAIK**

10:00. Sosola baserriraino irteera eta bertako produktuekin hamarretakoa.

17:00. Umeen pilota partidak, frontoian.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "El libro de la selva" umeendako filma, doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

BIEN APARECIDA JAIK

Dantza eta musika herriko kaleetan, Kantabriako Etxearen eskutik.

Domeka 18**BIEN APARECIDA JAIK**

Meza, San Andres elizan. Piskolabisa, Kantabriako Etxearen Jardiñetako egoitzan eta bazkaria.

KONTZERTUA

12:30. Cielito Musika Bandaren kontzertua (euririk ez bada, 11:30ean kalejira egingo dute). Coliseoan.

Eguaztena 21**HITZALDIA**

19:00. "Osakidetzeta. Eibarko ospitala, zer ari da gertatzen? Murrizketak Osakidetzan". EH Bilgunean (Toribio Etxebarria, 15).

MAGIA IKUSKIZUNA

19:00. Txoborro magoa., Berbetan programaren barruan. Urkin, Cepa tabernaren parean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 22**ODOL-ATERATZEA**

18:30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

Erakusketak**Irailaren 30era arte:**

- MANU BARREIROREN "Miradas y almas" argazki erakusketa. (*Klub Deportiboan*)
- JOSE LUIS IRIGOIENEN argazki erakusketa. (*El Ambigú tabernan*)
- JOAN PARERAREN "El pas del temps" argazki erakusketa. (*Portalea tabernan*)

Urriaren 29ra arte:

- JOSE ANTONIO FERNANDEZ PEREZEN "Flores de Las Merindades. Un año de fotografía", argazki erakusketa. (*El Corte Inglesean -ekitaldi aretoan-*)

MAYTE DE LUIS FERRERAS**1. URTEURRENA: 2015-IX-7**

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira **GURE ARTEAN.**

Zure familia

**ANTONIO GONZALEZ GUERRERO****I. urteurrena (2015-IX-20)**

"Beti biziko zara gure bihotzetan"

– ZURE FAMILIA –



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, IRATI, abuztuaren 30ian sei urte bete zenduazuen-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ALEX, haraiñegun sei urte bete zenduazuen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, ALAITZ, abuztuaren 1ian sei urte bete zenduazuen-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, SARA, martitzenian 11 urte bete zenduazuen-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, BEÑAT, astelehenian sei urte beteko dozuzelako. Ondo pasatuko dogu! Etxekuen partez.



Zorionak, NEREA, astelehenian 9 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN, Arrate egunian bost urte egin zenduazuen-eta. Musu pilla bat etxekuen eta lagunen partez.



Zorionak, LOREA, haraiñegun lau urte bete zenduazuelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, IXONE, hillaren 7xan lau urte egin zenduazuen-eta. Musu haundi bat, kukurutxu, famelixa guztiaren partez.




Zorionak, INTZA, preioxia, bixar 9 urte! Egun politta pasauko dogu, seguru! Musu haundi-haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, MALEN, neska haundi, domekan 11 urte honezkeru! 11 musu potolo zuretako, etxeko danon partez.



Zorionak, ANE, hillaren 12xan lau urte bete zenduazuen-eta. Laztan potolo bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, ANER Amuategi, hillaren 7xan 10 urte haundi bete zenduazuen-eta. Asko maite zaittugu!!! Famelixakuen eta, batez be, JUNERen partez.



Zorionak, LUCIA (abuztuaren 17xan 10 urte) eta KIRA (irailaren 9xan 12) bete dozuzelako. Musu bana etxekuen partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

17an: 17:00(Antz), 19:45, 22:30

18an: 17:00(Antz), 20:00

19an: 20:30

"Mascotas"

Zuzendaria: Chris Renaud



(2 ARETOAN)

17an: 17:00, 19:45, 22:30(Antz)

18an: 17:00, 20:00

19an: 20:30

"Gernika"

Zuzendaria: Koldo Serra



(ANTZOKIAN)

17an: 17:00(1 aret), 19:45, 22:30(2 aret)

18an: 17:00(1 aret), 20:00

19an: 20:30

"Cuerpo de Elite"

Zuzendaria: Joaquin Mazón



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Urkizu inguruan. 3 logela, jangela-egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Iggogailua. Eraikin berria eta eguzkitsua. Tel. 667-376212.

1.2. Errentan

– Pisua hartu nahi dut alokairuan Eibarren. Tel. 622-824468.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 631-649850.
 – Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-377921.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 631-649850.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.

1.3. Konpartitzeko

– Neska euskalduna pisukidea bila dabil Eibarren, konpartitzeko. Tel. 622-727777.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatik. Esetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

3.2. Errentan

– Ilepaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 602-193518.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-831103.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-047812.
 – Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-558402.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarak egiteko. Tel. 610-372074.
 – Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko, etxeko lanak edo garbiketarak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 652-587259.
 – Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, garbiketarak egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-966192.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Orduka. Tel. 671-989434.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-420183.

– Gizona eskaintzen da soldadore, pintore edo txofer modura. Tel. 632-022500.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean eta asteburuetan ere. Tel. 634-748531.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 628-738472.
 – Magisteritza titulua duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-715066. Saioa.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-252150.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 688-691739.
 – Hezkuntzan espezializatutako neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta eurekin etxeko lanak egiteko. Tel. 688-639371.
 – Neska euskalduna eskaintzen da pegorak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-252001.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 671-763558.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-315294.
 – Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 632-309899.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 628-318570.
 – Emakumea eskaintzen da gauzez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 636-247429.
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-408771.
 – Emakumea eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-312937.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 689-391261.
 – Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 626-444649.
 – Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-649850.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 660-290237.
 – Mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 943-203205 eta 695-716229.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-003537.
 – Emakumea eskaintzen da elkartekak, pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-483646.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 632-638105.
 – Magisteritza ikasitako neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 677-539087.
 – Geriatria formakuntza duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-810654.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-426847.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 675-207301.

4.2. Langile bila

– Pertsona euskalduna behar dut arratsaldetan umeak zaintzeko. Deitu 14:00etatik 16:00etara. Tel. 635-740726.
 – Estetizista behar da asteburuetarako Eibarko ilepaindegia batean. Esperientzia manikura eta makillajean. Tel. 615-795967.
 – Soin Hezkuntzan lizentziatua kontratatuko genuke Eibarko gimnasio batean, jardun osoz. Bidali curriculumak hilean 9rako: bpxport@bpxport.es
 – Emakume euskalduna behar da Eibarren umeak zaintzeko. Tel. 678-890340.
 – Pertsona euskalduna behar da haur txikia zaintzeko, bi ordu goizez eta beste bi arratsaldez. Tel. 607-926886.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Eibarko akademia batek ingeles eta frantseseko irakasleak behar ditu. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum-a: irakaslebarCV@gmail.com

5.2. Eskaintzak

– Hispaniar Filologia, BHko masterra eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. LH eta letretako ikasgaiak, DBH eta Batxilergoa. Tel. 665-741142.
 – Magisteritza eta EGA titulua dituen neska euskalduna eskaintzen da LH eta DBH klase partikularrak emateko. Tel. 638-715066. Saioa.
 – Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
 – Neska eskaintzen da LH, DBH eta Batxilergoko klaseak emateko. 3 laguneko taldeak. Tel. 943-127365 eta 685-739709.
 – Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da haur eta gazteei klaseak emateko. Ingeles titulua. Tel. 692-706012. Leire.
 – DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.
 – Magisteritza ikasitako ingeleseko titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
 – Magisteritza ikasitako EGA titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 677-539087.
 – Musika klase pertsonalizatuak ematen ditut zure etxean. Zure beharretara egokitutako metodo alaiak: biolina, pianoa, musika-hizkuntza, musikoterapia. Adin guztiak. Tel. 645-513273.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Narruzko bi sofa salgai (bat birenzat, besteak bakarrarentzat). Tel. 619-163031.
 – 1,35x1,90eko koltxoia (Woolmark markakoa) salgai. Biskalastikoa eta transpiragarria. Tel. 619-673058.
 – Mountain-bike bizikleta (Conor markakoa) salgai. Berria. Tel. 619-673058.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

lazko ekainean Nenoos zentrua Eibarren zabaldu zuteneguz, askok probatu dituzte haurren adimena modu dibertigarri eta eraginkorrean garatzeko heziketa metodo integralaren onurak. Espainian 40 zentrutik gora, 10.000 ikasle baino gehiagorekin daude martxan, umeek gaitasun berriak bereganatzen eta adimena garatzen laguntzen duten programa berritzaileak eskaintzen. Juan Gisasolako zentrua zabaldu zutenetik hona eskolaz kanpoko jarduerak lantzen ibili dira eta baita aisialdiko programa ere. Orain, ikasturte berriari begira, eskaintza zabaldu eta hezkuntza goiztiarrerako programa eskaintzen hasiko dira urritik aurrera, 0-3 urte bitarteko umeei zuzenduta dagoen BABY Nenoos-en bitartez.



ZER DA BABY NENOOS?

Nenoos-en proiektu hezitzailearen barruan programa ezberdinak lantzen dira eta horietako bat Baby Nenoos izeneko da. 0-3 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dagoen hezkuntza goiztiarrerako metodo berritzaile eta dibertigarria da eta, honetan ere, Nenoos-en eskaintza osoaren oinarrian dagoen Mind+Body+Emotion ikuspegi integralaren filosofiari jarraitzen zaio. Horren barruan, programa bi bereizten dira, umeen adinaren arabera: Baby Ready eta Baby Active.

NOLAKOAK DIRA PROGRAMA HORIEK?

Baby Ready izeneko 2-3 urte umeentzat pentsatuta dago. Helburua jolasaren bitartez ikaskuntzaren oinarriak ezartzea da. Umeek bakarrik, guraso barik hartzen dute parte eta horregatik talde txikiak osatzen ditugu. Kurtso osorako programa da, astean ordubetez lantzekoa. Umeek esperientzia ezberdinak bizitzen joaten dira eta horien bitartez euren zentzumen eta gaitasunak lantzen dituzte. Ikaskuntza goiztiarri esker, besteak beste, etorkizunean azkarrago, hobeto eta gehiago ikasteko aukera ahalbidetzen da.

ZEIN BEREZITASUN DAUKA BABY ACTIVE IZENKOAK?

Hau 0-2 urteko umeentzat pentsatuta dago eta hurrek gurasoekin batera hartzen

nenoos eibar

Juan Gisasola, 16
Telefonoa 688 802 705

nenoos
promoting talent



www.nenoos.es  eibar@nenoos.es



dute parte, biek elkarrekin. Izan ere, asmoetako bat gurasoak formatzea da, ikasitakoa gero euren etxean lantzen jarraitzeko aukera izan dezaten. Horretarako 8 saioko tailerrak antolatu ditugu, lau guztira: "Haurrentzako masajeak", "Haurrentzako gimnasia eta yoga", "Zentzumenen espazioa" eta "Jolas hezigarriak". Urrian lehenengo biek hasteko asmoa daukagu.

ZER LANDUKO DUZUE TAILER BAKOITZEAN?

"Haurrentzako masajeak" izenekoan ukimenaren bitartez haurren gorputza nahiz alderdi emozionalarekin komunikatzeko teknika atsegina ikasiko dute. Guraso eta seme-alaben arteko harreman

emozionala indartzeaz gain, haurren autoestimua hobetu, arnas-aparatuko, udail-hesteetako eta zirkulazio funtzioak indartu eta erregulatu eta loa hobetzen laguntzen du. "Gimnasia eta yoga" tailerrean, berriz, haurri bere gorputz eskemaren kontzientzia hartzen eta muskulatura indartzen laguntzen dioten mugimenduen errutina landuko dugu. Horren onurak asko dira: oreka eta koordinazioan, haurren autonomiarako mesedegarria da eta muskulatura ere indartzen da. "Zentzumenen espazioa" tailerrean esperientziazio eta bizipenen bitartez ikasten dugu. Horretarako zentzumenaren estimulazioa sustatzen dugu ikusmen, entzumen, usaimen,

ukimen eta dastamenaren bitartez. Horri esker haurrak inguruarekin duen interakzioa eta munduaren ezagutza errazten dira. Eta laugarrena "Jolas hezigarriak" izeneko da. Haurren komunikazio-bide nagusia jolasa dela jakinda, hainbat egoera sortu ditugu hurrek ikasi dezaten eta, era berean, haz daitezten (irakurketaren hastapena, adimenerakobits-ak eta flash card-ak, besteak beste). Horrekin sormena, adierazmena eta komunikazioa estimulatu dira, gurasoen ikaskuntza-rola indartzen da eta ikasteko motibazioa ere sustatzen dugu. Informazio gehiagorako 688 802 705 telefonora deitu edo eibar@nenoos.es helbidera idatzi daiteke.



Irailaren
21ean 
18:00etan

BABY NENOOS
PROGRAMAREN
BILERA
INFORMATIBOA
GURASOENTZAT

UGAN KLUB

Zure kirol, eta osasun zentroa.

Berriak:

“Zuk nahi duzun ekintza, zuk nahi duzunean”

fitness · crossfit · aerobik
· aeroboxing · hipopresioak · pilates metodoa · ciclo-indoor · power dumbbell · gap · bosu · aretoko dantzak · haurdunentzako jarduerak · mantendu gimnasia · aquatonic / aquagym · haurrentzako ur jarduerak...

“Ekintza berriak: JUMPFIT eta TRX eta Spining gela berrietua”

Gure bazkideentzat
Orbea eta **Unbe**-ko instalakuntzak erabiltzeko aukera

Prezioak:

TARIFA PLANA: **60€**/hilean

GIMNASIOA: **50€**/hilean

M A T R I K U L A : **50€**

(Esfortzu proba barne)

UR JARDUERAK: **50€**/ hilean

“Kirola eta Osasuna Profesionalen eskutik”

“Personal Trainer zerbitzua eta aholkularitza fisikorako zerbitzua”.



Calle Fermín Calbetón N° 21 Bajo · Tel. 943 820452 · 20600 Eibar · Gipuzkoa ·
www.uganklub.net · uganklub@gmail.com